# hiruka

Uribe Kostako astekaria

**Udako berezia. 101. zenbakia** Uztailaren 6tik irailaren 13ra arte



# Lemari eutsi!

Getxo
PUNTA
BEGOÑA
Galeriak



**HIRUKA Koop. elk.**
**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a 48991 GETXO
**e-maila:** hiruka@hiruka.eus **P.-Ku.:** 171
**Telefonoa:** 944 911 337 / 688 693 195
**Publizitatea:** Idoia Ibarluzea / Idoia Lorente

**Erredakzioburua:** Irantzu Sagarminaga
**Erredakzioa:** Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
**Argazkiak:** Hodei Torres
**Testuen orrazketa:** Garazi Urra Errasti

**Diseinua:** Artefakto
**Kudeaketa:** Ziortza Merino / Fredi Paia
**Filmazioa eta Inprimategia:** BEPSA
**L.G.:** BI-2022-2014 **ISSN:** 2386-98-95
**Ale-kopurua:** 8.000 ale **CC-BY-SA**

TOKIKOM
www.hiruka.eus

# Eutsi!

Udari, oporrei, jaiei edo gogokoen duzuen egitekoari gogor eutsi! Sasoi honetan, gure eskualdeko itsaso eta lurretan, zuen begira izango dituzuen aukera asko eta askotarikoek osatzen dute HIRUKAren zenbaki berezi hau; lema Uribe Kostara okertuta, beti!

Kataloxa, begi-ordea edo largabista luzera begira ipini dugu: uztailaren 6tik irailaren 13ra arteko bizitza izango du HIRUKA astekariaren 101. zenbaki honek. Hilabete bi hauetako ekitaldi esanguratsuak eta jaien egitarauak berton laburbilduta dituzue. Adi! Kontuan izan aldaketak egon litezkeela, zenbait jairen egitarauak aurrerapen nahikotxogaz argitaratu ditugulako. Hori dela eta, QR kodea mugikorraz eskaneatuz gero, zuzenean joko duzue aukeratutako albistera edo jai-egitaraura, HIRUKA.EUS agerkari digitalera eroango zaituztelako. Hortxe berton, Uribe Kostako mapa interaktibo bat aurkituko duzue: suzirien gainean klikatuz gero, herriz herri, eguneratutako egitarauak agertuko zaizkizue; eta egin ahala, bideoak ere bai!

Izan ere, joan den urtean legez, aurton ere, zure herriko ekitaldi nagusietan egongo gara HIRUKAren itsaslapurrok, begi-ordeak eta entzungailuak eskuan, prest, zure berben eta kontakizunen irrikan, zu zeu zarelako gure altxorra... Horregatik, ehunka zentzutan, zure bila gabiltza!

Eskerrik asko zenbaki berezi hau egiten lagundu diguzuen denei: jai-batzordeei, kultur etxeei, publizitatea erosi dutenei, eta, batez ere,- gure bihotzeko harribitxiei: HIRUKAren bazkideei eta HIRUKAlagunei. Bihotz eta buru, astindu kaskezurra, aitzurrak prest, eta abordatzera!

Udaldi on!
Eta bueltak... HIRUKAri!
Irailera arte!

**Erakunde laguntzaileak:**

Getxo bizi euskaraz
Leioa Udala-Ayuntamiento Euskara Zerbitzua
Erandio Elizateko Udala
Berangoko Udala
Gorlizko Udala
Urdulizko Udala
Plentziako Udala
Barrikako Udala
Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

# Uribe Kosta jaietan




Mugikorraz kode hori eskaneatuz gero, mapa interaktibo bat agertuko zaizu. Suzirietan sakatzen baduzu, jai-egitarauak, bideoak eta abarrak ikusiko dituzu.




## Sopela
Uztailak 13-16
**KARMEN JAIAK LARRABASTERRA** ........ 12
Uztailak 20
**SANTA MARINA EGUNA** ........ 15

## Getxo
Uztailak 7-9
**NEGURI LANGILEKO JAIAK** ........ 7
Uztailak 13-15
**GETXO BLUES JAIALDIA** ........ 11
Uztailak 20-22
**NAZIOARTEKO XXXIII. FOLKLORE JAIALDIA** ........ 16
Uztailak 21-23
**SANTA ANA JAIAK AREETA** ........ 18
Uztailak 23
**PAELLA EGUNA AIXERROTAN** ........ 22
Uztailak 28-31
**SAN INAZIO JAIAK ALGORTA** ........ 24
Uztailak 30-Abuztuak 6
**ITZUBALTZETAKO JAIAK** ........ 32
Abuztuak 10
**SAN LORENTZO AZOKA ALGORTA** ........ 36
Abuztuak 11-15
**PORTU ZAHARREKO JAIAK** ........ 38
Abuztuak 31-Urriak 1
**GETXOPHOTO JAIALDIA** ........ 52

## Berango
Uztailak 22-26
**SANTA ANA JAIAK** ........ 19
Abuztuak 4-6
**SANTO DOMINGO JAIAK** ........ 35
Abuztuak 6
**BAKAILAO EGUNA** ........ 35

## Gorliz
Uztailak 7-9
**UMORE GAUAK** ........ 5
Uztailak 7-9
**DASTATU GORLIZ** ........ 6
Uztailak 21-26
**SANTIAGO JAIAK** ........ 20
Abuztuak 4-6
**ANDRAMARIAK** ........ 36
Abuztuak 10
**SAN LORENTZO EGUNA** ........ 36
Abuztuak 19-20
**UREZARANTZAKO JAIAK** ........ 43

## Plentzia
Uztailak 7-10
**SAN KRISTOBAL JAIAK** ........ 6
Uztailak 11-13
**HISTORIA JARDUNALDIAK** ........ 10
Uztailak 15-16
**KARMEN JAIAK** ........ 14
Uztailak 21-23
**MADALEN JAIAK** ........ 14
Uztailak 29
**SARATXAGAKO JAIAK** ........ 30
Uztailak 31
**SAN INAZIO JAIAK** ........ 30
Abuztuak 18-19
**AGORRIJAZZ JAIALDIA** ........ 42
Abuztuak 26-Irailak 3
**SAN ANTOLIN JAIAK** ........ 46

## Leioa
Uztailak 30-Abuztuak 6
**PINUETAKO JAIAK** ........ 32
Abuztuak 17-18
**SANTIMAMIKO JAIAK** ........ 42
Abuztuak 24-27
**SAN BARTOLOME JAIAK** ........ 43
Irailak 1-17
**ANDRA MARI JAIAK ONDIZ** ........ 48
Irailak 8-10
**UDONDOKO JAIAK** ........ 48

## Lemoiz
Uztailak 12-16
**KARMEN JAIAK ARMINTZA** ........ 8
Abuztuak 11-19
**ANDRAMARIAK URIZAR** ........ 40

## Urduliz
Uztailak 8
**RABU EGUNA** ........ 7
Uztailak 20 eta 22
**SANTA MARIÑEKO JAIAK** ........ 15
Irailak 4-17
**ANDRAMARIAK** ........ 50

## Erandio
Uztailak 7-10
**SAN KRISTOBAL JAIAK GOIERRI** ........ 5
Uztailak 15-16
**ASUAKO JAIAK** ........ 10
Uztailak 20
**NAZIOARTEKO XXXI. FOLKLORE JAIALDIA** ........ 16
Abuztuak 9-13
**SAN LORENTZO JAIAK ASTRABUDUA** ........ 37
Abuztuak 13-15
**ANDRAMARIAK ERANDIOGOIKOA** ........ 41
Abuztuak 17-18
**SANTIMAMIKO JAIAK** ........ 42
Abuztuak 24-29
**SAN AGUSTIN JAIAK ALTZAGA** ........ 44

## HIRUKIRA Olgetan
**UMEEI BEGIRAKO DENBORA-PASAK** ........ 53-56




© ITSASO BASAÑEZ

# Zelan bizi dugu uribekostarrok uda? Zure irudien bidez konta dagigun!

***Bidali zure udako argazkiak*** Uribe Kostako Uda argazki-lehiaketara. Irudiak *www.hiruka.eus* webgunera igo beharko dituzue, lehiaketaren atalera. Hirugarrenez antolatu du HIRUKAk lehiaketa, Nekaturrek, Casa de Marinosek eta Saigon Fusionek lagunduta. Saridunak herri-bozketaz aukeratuko dira, irailean.

### Parte-hartzaileak

Uribe Kostan jaio edo bizi diren 18 urtetik gorakoak.

### Noiz eta zelan aurkeztu

Uztailaren 7tik irailaren 17ra (biak barne), www.hiruka.eus webgunearen bidez.

### Herri-bozketa

Epaimahaiak aukeratutakoen artean, saria jasoko duten 3 onenak irailaren 19tik urriaren 7ra arte bozkatu ahal izango dira, webgunean. Urriaren 11n jakinaraziko dira saridunak.

**info+: www.hiruka.eus**
administrazioa@hiruka.eus

## SARIAK

**Irabazlearentzat:**

Bi pertsonarentzako gau biko egonaldi bat NEKATUR Nekazal Turismo elkarteko ostatuetan, logela edo apartamentuetan. Egonaldia aste-akabuan zein aste barruan izan daiteke (behe-denboraldian).

**Bigarrenarentzat:**

Bi pertsonarentzako gau biko egonaldi bat eta bazkari ala afari bat Plentziako Casa de Marinos hotelean (behe-denboraldian).

**Hirugarrenarentzat:**

Bi pertsonarentzako afari bat Algortako Saigon Fusion jatetxean.

nekatur — Casa de Marinos Uribe Kosta — Saigon Fusión

GOIERRI (ERANDIO)

# San Kristobal

## Uztailak 7-10

**Uztailak 7, barikua**
**18:30** Ume-kuadrillen igoera, Iberretik (Sondika) San Kristobalera.
**19:00** Jagoba Bilbaoren omenezko XII. Txinbera Lehiaketa.
**22:00** Disko-festa, Markeline DJagaz.

**Uztailak 8, zapatua**
**16:30** Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa, 600 kilogramoko kategorian.
**17:30-21:30** Puzgarri erraldoiak eta bits-festa.
**20:30-22:00** Saiheski-jana, doan.
**24:00** Kontzertua, Gora Herria taldeagaz. Ondoren, musika egongo da txosnan.

**Uztailak 9, domeka**
**09:30** Kotxe eta motor klasikoen kontzentrazioa, izen-ematea.
**12:00** Ibilgailu klasikoen ibilaldia.
**12:30** Eliza-ospakizuna.
**13:00** Dantza-erakustaldia, Goialde taldeagaz.
**18:00** Olgetan Solas ekimena.
**18:30** Asto-probak.
**21:00** Jaien amaiera.

**Uztailak 10, astelehena**
**12:30** Meza nagusia.
**13:00** Hamaiketakoa, auzoko nagusientzat.



GORLIZ

# Umorearen agerleku izango da Gorliz

**Antzezlanak eta bakarrizketak** egongo dira uztailaren 7tik 9ra bitartean udalerriko Elizako plazan.

Joan den urteko arrakastari jarraituz, Gorlizko Umore Gauen bigarren edizioa egingo dute aurton. Hala, umorearen antzezleku izango da Gorlizko Elizako plaza, barikutik domekara bitartean. Horretarako, karpa bat ipiniko dute antolatzaileek; euria egingo balu, bertan babestu ahal izateko. Egun bakoitzeko saio bana antolatu dute; gaueko 22:00etan hasiko dira emanaldiak, eta sarrera doakoa izango da. Gainera, arduradunek iragarri dutenez, bertara hurbilduko direnek Tito Blas ekoizlearen garagardoa dastatzeko aukera izango dute, 21:00etatik aurrera.

Lehenengo egunean, barikuan, *Improtxou* bat-batean sortutako antzerkia erakustera taularatuko dira Diego Perez, Mutxel Santamaria, Soledad Carril, Leire Orbe eta Aitor Borobia. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, espektakulu horren alde «garrantzitsua» publikoa izango da, horien arabera garatuko baita istorioa.

Hurrengo egunean, hilaren 8an, Olatz Beobideren, Belen Cruzen eta Amaia Lizarralderen *Nomofobikak* antzezlanaz gozatu ahal izango da, zapatuan. Horretan, *sketch* zein bakarrizketa bezala aurkeztuko dituzte istorioak, «betiere umorea lagun, burua astintzeko asmotan».

Amaitzeko, domekan, Maribel Salas eta Iñigo Salinero artisten bakarrizketek eragingo dituzte bertaratuko diren guzti-guztien irribarreak.

**Uztailak 7, barikua**
**22:00** *Improtxou*, inprobisatutako antzerkia, Elizako plazan.

**Uztailak 8, zapatua**
**22:00** *Nomofobikak*, antzerkia, Elizako plazan.

**Uztailak 9, domeka**
**22:00** Maribel Salas eta Iñigo Salinero artisten bakarrizketa-saioa, Elizako plazan.




PLENTZIA

# San Kristobal Uztailak 7-10



**Uztailak 7, barikua**
**22:00** Kaleko zinema, eta txokolate-edana.

**Uztailak 8, zapatua**
**10:30** Suziria botatzea.
**11:00** Balkoien apainketa.
**11:00** Kalejira buruhandiakaz.
**11:30** Familien arteko lehiaketa: tortilla eta entsaladak.
**13:30** Tortilla eta entsaladen aurkezpena.
**16:00** Familiarteko jolasak.
**18:00** Hegaztien erakusketa.
**20:00** Tortilla- eta entsalada-lehiaketaren sariak banatzea.
**20:30** Parrillada-jana.
**22:00** Zezensuzkoa.
**22:30** Txosnan, musika: 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetakoa. Mozorrotuta joan, sariak egongo dira eta!

**Uztailak 9, domeka**
**11:00** Diana.
**11:30** Kalejira, buruhandiakaz.
**12:00** Umeentzako ur-jolasak eta puzgarriak.
**13:00** Igel-tokaren eta Sjoelen lehiaketa, txosnan.
**14:00** Herri-bazkaria: paella erraldoia.
**17:00** Mus- eta tute-lehiaketak.
**17:00** Umeentzako tailerra eta aurpegiak margotzea.
**19:00** Zumba-saioa, hurbiltzen diren guztientzat.
**20:30** Tute- eta mus-lehiaketen sariak banatzea.
**22:00** Zezensuzkoa.

**Uztailak 10, astelehena**
**11:00** Diana.
**11:30** Aurreskua eta lore-eskaintza, San Kristobalen omenez.
**12:15** Jubilatuentzako luntxa.
**17:00** Magdalena gozoak egiten ikasteko tailerra.
**19:00** Dantza-erakustaldia, Itxas Eder taldeagaz.
**20:00** Kantagunea.
**20:30** Sardina-jana.
**21:00** Disko-festa.
**22:00** Zezensuzkoa.
**22:15** Jai amaierako traka.

*Eguraldi txarra bada, jarduerak aterpe batean egingo dira.

GORLIZ

# Aste-akabu gastronomikoa



Uztailaren 7an, 8an eta 9an, Dastatu Gorliz izeneko jardunaldi gastronomikoak egingo dituzte udalerrian. Egun horietan, Gorlizera hurbiltzen diren guztiek aukeran izango dituzte euro bateko pintxoen ibilbidea egitea, plater bereziak dastatzea, gastroguneetan bertoko produktuak erostea, hainbat dastaketa egitea eta tailer gastronomiko osasungarrietan parte hartzea. Gastrogune delakoak San Pedro plazan eta Elizako plazan izango dira. Gorlizko Turismo Bulegoak liburuxka bat kaleratu du horren denaren berri emateko.

GETXO

# Neguri Langileko jaiak, martxan!

Eskualdean oso ezagunak diren jai nagusiez gainera, auzoko jaiak ere baditu Getxo udalerriak, berbarako, Neguri Langilekoak. Aurten, uztailaren 7tik 9ra bitartean ospatuko dituzte festak auzo horretako lagunek, eta askotariko hamaika ekitaldi egongo dira, tarte horretan, denen gozamenerako.

Uztailaren 7an emango diote hasiera festari, barikuan, 18:30ean, txupinazoa jaurti ostean; jarraian, kalejira egingo dute buruhandiakaz, eta auzoko neska-mutil gazteenak puzgarrietan jolastu ahal izango dira. Iluntzean, 20:00etan, Hodei Magoak magia-ikuskizuna egingo du, bertaratuko direnak txundituta utzi guran. Gauean, berriz, haurrentzako berbena egongo da, dantzan alai ibili ahal izateko. Hurrengo egunean ere ez da aspertzeko aukerarik egongo; tailerrak, marrazkien eta igel-tokaren lehiaketak, mus-txapelketa eta disko-festa egongo baitira zapatuan, besteak beste. Domekan, ostera, herri-kirolen erakustaldia eta paella-lehiaketa egongo dira, beste hainbat jardueraren artean.



**Uztailak 7, barikua**
**18:30** Txupinazoa. Kalejira, buruhandiakaz, eta puzgarriak.
**20:00** Hodei Magoaren *La hora mágica* ikuskizuna.
**21:00** Aulkien jolasa.
**22:00** Haurrentzako berbena, Ttiki Ttaka Irratia taldeagaz.

**Uztailak 8, zapatua**
**11:30** Haurrentzako puzgarriak.
**12:00** Txapelketa: plater irekia.
**12:15** Zirku-eskolaren tailerra.
**13:00** Marrazki-lehiaketa.
**13:45** Igel-tokaren txapelketa.
**16:30** Mus-txapelketa.
**17:30** Umeentzako «triple»-txapelketa.
**18:30** Haurrentzako antzerki-ikuskizuna, Monda eta Lironda taldeagaz.
**20:00** *Tina* ikuskizuna.
**21:00** Disko-festa, Xaiborregaz.

**Uztailak 9, domeka**
**11:30** Haurrentzako puzgarriak.
**11:45** Paella-txapelketaren hasiera.
**12:00** Ping-pongeko txapelketa.
**12:15** Herri-kirolen erakustaldia.
**17:30** *Ezetz konta!* txotxongilo-antzerkia, Xilipurdigaz.
**18:30** Mozorro-lehiaketa.
**19:30** Play-backen lehiaketa.

URDULIZ

# Buztan erregosirik onena ea zeinek egin, uztailaren 8an

Rabu Txapelketan ezinbesteko hitzordua dute urduliztarrek. Aurten 51. edizioa izango da, eta daborduko buztan erregosia prestatzen adituak direla esan daiteke. Uztailaren 8an, zapatuan, goizeko 09:00etan emango diote hasiera egunari, Urdulizko landan. Lapikoak 13:30ean aurkeztu beharko dituzte; sariak, ostera, 17:30ean banatuko dituzte. Amaitzeko, erromeria egongo da, Taberna Ibiltaria taldeagaz.



LEMOIZ

# Karmenak Armintzan Uztailak 12-16



**Uztailak 12, eguaztena**
**18:30** Txupinazoa eta jaien hasiera.
**19:00** Triatloi herrikoia.
**20:00** Zumbatoia.
**20:30** Otarrainxka-jana, txosnan.
**22:00** Umeentzako eta nagusientzako probak.
**23:00** Musika, txosnan.

**Uztailak 13, eguena**
**12:00** Umeentzako jolasak, txosnan.
**17:00** Umore-rallya, txosnan.
**17:30** Tortilla-txapelketa (14:00-15:00: izen-ematea, txosnan; 17:30: aurkezpena, eta 22:00: sari-banaketa).
**19:00** Bertso triki poteoa, tabernaz taberna; txosnan hasi, eta bertan amaituko da ibilbidea.
**20:00** Txitxi-burruntzia, txosnan.
**23:00** Kontzertua, «talde sorpresa».

**Uztailak 14, barikua**
**12:00** Umeentzako puzgarriak.
**12:30** Tabernen arteko VI. Pintxo Lehiaketa Mundiala.
**16:30** Umeentzako puzgarriak.
**19:30** Pala-partidak.
**16:30** Umeentzako puzgarriak.
**22:00** XIII. Matxakao Lehiaketa, tabernetan.
**23:00** Dantzaldia, Urrats erromeriagaz.
**01:00** Patata-dantza.

**Uztailak 15, zapatua**
**12:00** Ragga Cuping skate-jaia, skate-parkean.
**12:30** Rasta-poteoa, kalerik kale, Batukale perkusio-taldeagaz.
**16:00-21:00** Sound Systemen emanaldia, skate-parkean.
**20:00** Sardina-jana, txosnan.
**22:00** Kontzertuak: Armintzako Txapel Reggae jaialdia:
- Macka B & Roots Ragga Band (Erresuma Batua)
- The Mighty Jah Observer (Jamaika eta Erresuma Batua)
- The Hotknives (Erresuma Batua eta Jamaika)
- Danny Red & Irregular Roots (Zaragoza)
- Skabidean (Nafarroa)

**Uztailak 16, domeka**
**13:00** Nagusientzako hamaiketakoa.
**13:30** Poteoa, bizirik iraungo dutenakaz.
**17:30** Karmengo Amabirjinaren omenezko meza.
**Ondoren**, itsasora prozesioa, txistulariakaz; kukaña-lehiaketa eta txalupen lasterketa.
**19:00** Zumba-festa, agerlekuan.
**20:00** Sardina-jana, txosnan. Ostean, sarien banaketa eta otarrainaren zozketa.
**22:30** Txokolatea banatuko dute, txosnan; eta, geroago, bideo-emanaldia egongo da.
**00:00** Jaien amaierako traka.







# Bost egunean, dantzan egiteko



© THE MIGHTY JAH OBSERVER

Uztailaren erdialdean hasiko dira Armintzako Karmen jaiak. Aurton ere, musika jamaikarra ardatz duen jaialdia izango da festetako hitzordu nagusietako bat: Txapel Reggae jaialdia ospe handiko ekitaldia da gure inguruan. Hala ere, adin guztientzako hamaika aukera egongo da egunotan portura begirako auzoan. Beren-beregi, uztailaren 12an emango diete hasiera karmenei, 18:30ean, suziria botatzeagaz batera. Ostean, lau eguneko etenbako egitarauaz gozatu ahal izango dute armintzarrek, lemoiztarrek edo inguruko herrietatik hurbilduko diren guztiek. Berbarako, otarrainxka-jana, triatloia, umeentzako puzgarriak, pintxo-lehiaketa, poteoak, zumba-festa, sardina-jana eta auzotarrentzako askotariko txapelketak egongo dira. Horrez gainera, XXVII. Txapel Reggae jaialdia izango da, eta, urtero legez, nazioarteko zein Euskal Herriko talde ugari etorriko dira Armintzara. Ostera, bestelako jarduera batzuk ere egongo dira aukeran, berbarako, skate-jaia eta Sound Systemen musika.

## Reggaea, buru-bihotzean




Reggae-musikaren erreferente bihurtu da Armintzako Txapel Reggae jaialdia, urtez urte. Ehunka lagun hurreratzen dira urtero Armintzara doinu jamaikarrez gozatzera, eta aurton ere egundoko aukera izango dute Lemoizko kostaldeko auzoan, uztailaren 15ean, zapatuan. Leku askotatik etorritako taldeak entzun ahal izango dira, taula gainean zein Sound System jaian. Azken horretarako, 14.000 watteko potentzia duen soinu-ekipoa ipiniko dute antolatzaileek.

AIXERROTA BHI IKASTETXEA
Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)
Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

saiazgetaria HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiazgetaria.com



PLENTZIA

# Plentziako artea, bideak eta errituak, berbabide, egunotan

**Uztailaren 11n, 12an** eta 13an udalerriko historiaren gaineko jardunaldiak egingo dituzte, Goñi Portalen. Martitzenean eta eguaztenean, adituek bina berbaldi emango dituzte; azken egunean, Plentzia Museoaren lanaz arituko dira.

Plentziako Historiaren gaineko X. Jardunaldiak egingo dituzte hiribilduko Goñi Portal kultur etxean. Hala, hainbat berbaldi egongo dira uztailaren 11n, 12an eta 13an. Jardunaldi horien helburua da XIX. mende amaieran izan zen aldaketa aztertzea: Bilboko trenaren etorreraren aurretik (1898), eskualdeko kultura industrialaren gainbehera hasi zenean; kofradia eta Andra Mariren erritu erlijiosoak bertan behera utzi ziren, udatiarrak eta bertoko artistak edertasun naturalak baloratzen hasi ziren eta hiribildura zetozen bideak hobetu ziren, besteak beste. Horren denaren berri emateko berbaldiak eskainiko dituzte askotariko eremuetako adituek. Jardunaldiak David Crestelo Plentziako alkateak, Rosa Miren Pagola Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko lehendakariordeak eta Gonzalo Dúo jardunaldion koordinatzaileak abiaraziko dituzte. Martitzenean eta eguaztenean, bina berbaldi egongo dira; eguenean, berriz, Plentziako Museoaren Etnografia Batzordearen ikerketen berri emango dute hainbat adituk.

**Uztailak 11, martitzena**

**19:30** *Gorliz y Plentzia entre los siglos XIX y XX. J. S. Bilbao y Lopategui. La arquitectura de su generación* berbaldia emango du María Jesús Pachok.

**Ondoren:** *Plentzia en el Arte. Artistas de Plentzia* berbaldia emango du Javier Novok.

**Uztailak 12, eguaztena**

**19:00** *Caminos de Plentzia antes de 1898* azalduko du Urdin Elortzak.

**Ondoren:** *La ermita de Andra Mari (Gorliz). Una interpretación desde la Antropología Cultural y del fenómeno religioso* berbaldia emango du Gonzalo Dúok.

**Uztailak 13, eguena**

**19:00** Plentziako Museoaren Etnografia Batzordearen ikerketak.

ERANDIO

# Aste-akabuko jaiak, Asuan!



**Honat erromeria.** © HONAT

Uztailaren 15ean hasiko dituzte Asuako jaiak erandioztarrek, zapatuan. Hala, goizeko 11:00etan suziari su eman ostean, festari ekingo diote; horren ondoren, Apurtuarteko beteranoek futbol-partida jokatuko dute. Ordubete geroago, 12:00etan, ume eta familiei begirako Olgetan Jolas egitasmoaren jarduerak hasiko dira. Geroago, 14:00etan, sukalki onena aukeratzeko lehiaketa abiatuko dute. Arrastian, euskal dantzen agerraldia (18:30); disko-festan, DJ Xaboirregaz dantza egiteko aukera (19:30), eta indarra berreskuratzeko txorizo-jana egongo dira; eta, berriro ere, dantzatzeko aukera, Honat taldeak joko dituen kantuen doinura (00:00).

Hurrengo egunean, domekan, mezarako aukera egongo da, 12:00etan; gero, 12:30ean, Erandioko Musika Bandaren kontzertua entzun ahal izango dute beste batzuek. Geroago, 13:00etan, nagusiek mokadutxoa jan ahal izango dute; gainerakoek, 15:00ak aldera sagardotegi-menu bategaz tripa asetzeko hitzordua izango dute, herri-bazkaria orduantxe izango da eta. Iluntzean, berriz, jaiak amaitzeko ordua izango da; hala ere, lehenago, dantzatzeko aukera izango dute auzora bertaratuko diren guzti-guztiek, 17:30etik aurrera.

GETXO

# Bluesaren zaleak Algortako erdigunean batuko dira



**Ordaindu beharreko kontzertu denak Algortako Bihotz Alai plazan izango dira.** © FREEDONIA

Getxoko XXIX. Blues Jaialdia uztailaren 13tik 15era bitartean izango da aurten, Algortan. Ohi den legez, jaialdiak musikaz beteko ditu Algortako erdiguneko hainbat txoko; izan ere, Bihotz Alai plazan egingo diren ordainpeko kontzertuez gainera, doako emanaldiak entzuteko aukera egongo da The Piper´s Irish Pub tabernan, barikuan eta zapatuan, 23:00etatik aurrera. Horrez gainera, egun horietan bietan, Crazy Jazzer Street Band taldeak blueszaleak dantzan ipiniko ditu, Algortako erdiguneko kaleetan, alderik alde ibiliko baita arrastiko 07:00etatik aurrera. Algortako Telletxe plazatik irten, eta San Nikolas plazaraino heldu arte jotzen ibiliko dira. Ordainpeko kontzertuetako sarrerak 10 eta 15 euro artean salduko dituzte, egunaren eta jotzen duen taldearen arabera. Sarrerak daborduko eros daitezke, Kutxabanken orotariko kutxazainetan, banku horren webgunean eta Villamonteko kultur etxean bertan (Algorta).

**Uztailak 13, eguena**

**20:00** Priscilla Band eta Freedonia taldeen kontzertua, Algortako Bihotz Alai plazan. Sarrera 10 euroan dago salmentan.

**Uztailak 14, barikua**.

**19:00** Crazy Jazzer Street Band taldearen desfilea, Algortako Telletxe plazatik San Nikolas plazaraino.
**21:00** William Bell Band taldearen kontzertua, Algortako Bihotz Alai plazan. Sarrera, 15 euroan.
**23:00** Confluence taldearen kontzertua, Algortako The Piper´s Irish Pub tabernan. Sarrera, doan.

**Uztailak 15, zapatua**

**19:00** Crazy Jazzer Street Band taldearen desfilea, Algortako Telletxe plazatik San Nikolas plazaraino.
**21:00** Music Maker taldearen kontzertua, Algortako Bihotz Alai plazan. Sarrera, 10 euroan.
**23:00** Woody Blues Trio taldearen kontzertua, Algortako The Piper´s Irish Pub tabernan. Sarrera, doan.






SOPELA

# Larrabasterrako Karmen jaiak Uztaila

**Uztailak 13, eguena**

**17:00** Familiek kanpaldia izango dute, Iberrota plazan, Larrabasterrako auzokideen laguntzagaz. Kanpadendak eroateko deia egin dute antolatzaileek.

**18:00** Parrilada, Jubilatuen etxean.

**19:00** Jaien hasiera. Kalejira, Loiola Ander deuna kaletik; mozorrotuta joateko dei egin dute.

**20:30** Pregoia irakurri eta suziria botako du Sopekoo taldeak, Urgitxieta plazan.

**21:00** *Go!azen* ikuskizuna, publiko guztientzat, Urgitxieta plazan.

**23:30** Kontzertuak: El Beso de Klimt eta Garilak 26 taldeenak, Urgitxieta plazan.

**Uztailak 14, barikua**

**11:00-14:00** Umeentzako jolas-parkea: puzgarriak, trena, ludoteka... Urgitxieta plazan.

**11:00-14:00** Gazteentzako jolas-parkea: surf-simulatzailea, puzgarriak, *jumpinga*... Urgitxieta plazan.

**11:30-14:00** Kairen Txokoa: azukre-kotoia, krispetak eta gozokizko tartak egiteko umeentzako tailerra; 5 urtetik aurrerako umeentzat, Urgitxieta plazan.

**17:00-20:30** Umeentzako jolas-parkea: puzgarriak, trena, ludoteka... Urgitxieta plazan.

**17:00-20:30** Gazteentzako jolas-parkea: surf-simulatzailea, puzgarriak, *jumpinga*... Urgitxieta plazan.

**17:00-19:00** Kairen Txokoa: azukre-kotoia, krispetak eta gozokizko tartak egiteko umeentzako tailerra; 5 urtetik aurrerako umeentzat, Urgitxieta plazan.

**19:00** Disko-festa, Iberrota plaza.

**20:30** XXX. Futbito Txapelketaren finalak, Urko kiroldegian.

**23:00** Kontzertuak: Egurra ta Kitto eta Zatika taldeenak, Urgitxietan.

**Uztailak 15, zapatua**

**11:00-14:00** Umeentzako jolas-parkea: puzgarriak, ludoteka, *jumpinga*, trena, ohe elastikoak... Urgitxietan.

**11:00-14:00** Gazteentzako jolas-parkea: simulazio-makinak, bideokontsolak, puzgarri erraldoiak... Urgitxieta plazan.

**12:00** Kale-antzerkia: *Osasuna preziorik onenean*, Plataforma Tirante taldearen obra.

**13:30** Kalejira, Sopela kantari taldeagaz.

**14:30** Herri-bazkaria, Urgitxieta plazan. Txartelak aurretik erostea beharrezkoa da: hilaren 14a baino lehen (Ugari supermerkatuan eta Larrabasterrako Turismo Bulegoan). Nork bere edalontzia eta esku-sarda eroateko eskatu dute. Ostean, Rock Kalean taldearen ikuskizuna egongo da.

**16:30-19:30** Umeentzako Tringili Trongolo: koloreetako hareagaz jolasean, Kinet jolasak, eta txokolatezko gozokiak eta fruta-zukuak egiteko tailerrak.



Garilak 26 t

**16:30-20:00** 3x3 saskibaloi-txapelketa, Ugesaski taldearen ekimenez. Urko kiroldegian.

**18:00** Tiragoma-txapelketa, Peña Bizkaia de Tiragomas elkarteak antolatuta; Urgitxieta plazan.

**21:00** Kontzertua: Diamante Negro taldearena, Iberrota plazan.

**23:00** Kontzertua: Dr. Ring Ding taldearena, Urgitxieta plazan.

**Uztailak 16, domeka**

**Goiz osoan:** Kalejira, Barinatxe Txistu taldeagaz.

**10:00** Marmitako-lehiaketan izena ematea. 14:00etan, lapikoak aurkeztea; eta, 15:00etan, sariak banatzea. Urkon.

**11:00-14:00** Ume eta gazteentzako jolas-parkea: tailerrak, ludoteka, puzgarri erraldoiak, ur-puzgarriak...










## k 13-16



aldearen kontzertua eguenean izango da. © GARILAK 26

Bainujantzia jantzita joatea gomendatu dute. Urkon.

**12:00** Meza nagusia, Karmengo elizan. Ostean, Sopelako Lagun Artea abesbatzaren kantaldia eta ohorezko aurreskua.

**13:00** Kalejira, honako hauekaz: Sopelako Eguzkilore, Meñakoz dantza-taldea, Sopelako Pandero-joleak eta Barinatxe Txistu Taldea. Karmengo elizatik. Urgitxietara heltzean, dantza-taldeen erakustaldia.

**16:30** Bits-jaia, Urkon.

**17:00-20:00** Karaokea, Urkon.

**20:00** Dantza-plaza, Erdizka Lauetan taldeagaz; Urgitxieta plazan.

**21:00** Kontzertua: Tributo Sabina taldearena, Iberrota plazan.

**23:00** Erromeria: Gozategi taldearena, Urgitxieta plazan.
















PLENTZIA

# Karmenak Uztailak 15 eta 16

**Uztailak 15, zapatua**
**10:00** Marmitako-lehiaketan izen-ematea.
**11:00** Arrantza-lehiaketa; arrainak hil barik, uretara itzuliko dira harrapatu ostean.
**13:30** Marmitako-lehiaketaren lapikoak aurkeztea.
**14:30** Sarien banaketa.
**22:00** Zezensuzkoa.
**23:00** Erromeria.

**Uztailak 16, domeka**
**10:00** Ohorezko meza.
**10:30** Karmengo Ama Birjinaren omenezko itsas prozesioa.
**12:00** Ohorezko agurra eta dantzak.
**13:00** Fanfarria, Kuklux taldea.
**19:00** Itsas jolasak (ordutegia alda liteke, mareen arabera).
**20:00** Sardina-jana.
**22:00** Zezensuzkoa.



## Ondo pasatzeko hamaika aukera egongo da

Udan bete-betean sartuta gaudela, denboraz, konpainiaz eta eguraldiaz gozatzeko aukerarik ez da falta Plentzian. Hori gutxi ez balitz, beste horrenbeste jai antolatuta daude garaiotan, bertokoen zein etorritako guztien gozamenerako. Sankristobalak atzean utzita, karmenak eta madalenak ospatzeko ordua heldu da: uztailaren 15etik 16ra, eta hilaren 21etik 23ra, hurrenez hurren. Hala, egunotan hiribilduan egongo direnek askotariko jarduerez gozatzeko tartea izango dute, berbarako, txapelketa gastronomikoak, sardina-janak, zezensuzkoak, kontzertuak, umeentzako jolasak eta erromeriak. Horiez gainera, plentziarrek hitzordu garrantzitsua izango dute uztailaren 16an, Karmengo Ama Birjinaren omenezko itsas prozesioa egingo dute ibaian gora.

Bertan parte hartu gura duten denek ontziak erregistratu beharko dituzte Plentziako Turismo Bulegoan, uztailaren 7a baino lehenago. Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: izen-ematearen orria (udal-webgunean deskarga daiteke), nabigazio-ziurtagiria eta erantzukizun zibilaren aseguruaren ordainketa eguneratua. Udalak jakinarazi duenez, 40 ontzi baimenduko dituzte, gehienez; gainontzekoek ezin izango dute parte hartu. ◂

# Madalenak Uztailak 21-23

**Uztailak 21, barikua**
**18:00** Suziria botatzea eta, ostean, umeentzako jolas-parkea.
**22:00** Zezensuzkoa.
**22:30** Erromeria.

**Uztailak 22, zapatua**
**11:30** Elkarretaratzea eta Udalbatzaren igoera, elizara.
**12:00** Meza nagusia, eta aurreskua.
**13:00** Musika-bandaren kontzertua, Ontziola plazan.
**14:00** Koktel-lehiaketa.
**19:00** Elektrotxaranga.
**23:00** Erromeria, Urrats taldeagaz.

**Uztailak 23, domeka**
**12:00** Ur-jolasak eta azokatxoa, Isuskitzan.
**14:00** Sukalkia, Isuskitzan.
**18:30-20:00** Karaokean abesteko aukera egongo da, Isuskitzan.
**20:30-22:00** Erromeria: Los Timpanos taldeagaz, Isuskitzan.


© URRATS

SOPELA

# Santa Marinara!



Urtez urteko ohiturari jarraituz, suziriari 10:00etan su eman ostean, Santa Marinako haitzeraino heltzeko kalejira hasiko da, Barinatxe taldearen txistularien doinuez lagunduta. Ordubete geroago, baselizan meza nagusia entzun eta jarraian, ohorezko aurreskua dantzatu, eta lore-eskaintza egingo dute Fernando Ansoleagaren omenez, plazan. Gero, hamaiketakoa, herri-bazkaria eta tortilla-lehiaketa egongo dira, Fernando Ansoleaga plazan. Amaitzeko, bertara hurbilduko direnak dantzan ipintzeko erromeria egongo da.

**Uztailak 20, eguena**

**10:00** Txupinazoa eta, ostean, kalejira, Udaletxeko enparantzatik Santa Marinarainoko ibilaldia.
**11:00** Meza nagusia, Santa Marinako baselizan.
**11:30** Ohorezko aurreskua dantzatuko dute eta lore-eskaintza egingo dute, Fernando Ansoleaga zenaren omenez, bere izena duen plazan bertan.
**12:00** Hamaiketakoa, trikitixa doinuakaz alaituta.
**14:00** Herri-bazkaria, Fernando Ansoleaga plazan.
**18:00** Erromeria.

URDULIZ

# Santa Mariñe

## Uztailaren 20an eta 22an

**Uztailak 20, eguena**

**11:30** Igoera: Eliza aurretik Santa Mariñe baselizaraino, udal-agintariakaz batera, txistulariek lagunduta.
**12:00** Meza nagusia, eta ohorezko aurreskua.
**13:00** Hamaiketakoa, fanfarreak alaituta.
**18:00** Jaitsiera, Santa Mariñetik Antsonekoa plazaraino, buruhandiakaz eta dantzari-taldeakaz: Ikusgarri (Portugalete), Agurra (Algorta) eta Iratxo Gorria (Urduliz). Ondoren, talde horiek dantza-erakustaldia eskainiko dute, Antsonekoa plazan.
**20:00** Txokolatea banatuko dute, eta, gero, erromerian dantza egiteko aukera egongo da.

**Uztailak 22, zapatua**

**12:30-13:00** Tortilla-lehiaketarako izen-ematea.
**14:00** Tortillen aurkezpena.
**16:00** Kuadrillen arteko jokoak.
**17:00** Tortilla-lehiaketaren sari-banaketa. Euria egiten badu, jokoak eta sari-banaketa Antsonekoa plazan egingo dira.






ERANDIO ETA GETXO

# Bertoko eta hango dantzez gozatzeko hainbat jaialdi

**Uztailaren 20tik 22ra** nazioarteko folklore jaialdiak egingo dituzte Erandion eta Getxon.

**Uztailak 20, eguena. ERANDIO**
**20:00** Nazioarteko XXXI. Folklore jaialdia, Altzagako Irailaren 23a plazan. Taldeak: Goi-Alde Dantza Taldea (Erandio) eta Colimako Unibertsitatearen Ballet Folklorikoa (Mexiko).

**Uztailak 20, eguena. GETXO**
**21:00** Nazioarteko XXXIII. Folklore Jaialdia. Wisla (Polonia) taldearen dantza-erakustaldia.

**Uztailak 21, barikua**
**21:00** Itxartu Dantza Taldearen erakustaldia.

**Uztailak 22, zapatua**
**21:00** Colimako Unibertsitateko Ballet Folklorikoa (Mexiko).



© BALLET UNIVERSIDAD DE COLIMA

Musika, dantzak eta jantzi tradizionalak ez dira faltako uztailaren 20tik 22ra bitartean Erandion eta Getxon. Izan ere, egun horietan, nazioarteko folklore-jaialdiak egingo dituzte herri bietan. Lehenengoa egun bateko erakustaldia izango da, Altzagan, eta Erandioko Goi-Alde Dantza Taldeak eta Mexikotik etorritako Colimako Unibertsitateko Ballet Folklorikoak parte hartuko dute, 20:00etatik aurrera.

Ostera, Getxon, hiru eguneko jaialdia antolatu dute, eta dantza-lekua Algortako Bihotz Alai plaza izango da. Poloniar eta euskal dantza tradizionalez zein Mexikoko folkloreaz gozatzeko aukera izango dute hurreratuko diren den-denek. Saio guztiak 21:00etan hasiko dira; sarrera, doan.







GETXOKO NAZIOARTEKO BLUES JAIALDIA 29. FESTIVAL INTERNACIONAL DE BLUES DE GETXO
GETXO & BLUES
UZTAILA 2017 JULIO
BIOTZ ALAI ABESBATZAREN PLAZA / PLAZA CORO BIOTZ ALAI
OSTEGUNA 13 JUEVES
/// 20:00
PRISCILLA BAND + FREEDONIA 10€
OSTIRALA 14 VIERNES
/// 21:00
WILLIAM BELL BAND 15€
LARUNBATA 15 SÁBADO
/// 21:00
MUSIC MAKER FOUNDATION 10€
PUB PIPER'S Doan/Gratis ///23:00
OSTIRALA 14 VIERNES CONFLUENCE
LARUNBATA 15 SÁBADO WOODY BLUES TRÍO
ESTACIÓN/GELTOKIA
SAN NIKOLAS PLAZA (Algorta) ///19:00
OSTIRALA 14 VIERNES/LARUNBATA 15 SÁBADO
CRAZY JAZZER Street band
www.getxo.eus
kulturetxea@getxo.eus
SARREREN SALMENTA
VENTA DE ENTRADAS
94 491 40 80 • Getxoko Kultur Etxea (Villamonte, A-8)
www.kutxabank.es
Orotarako kutxazainak Cajeros multiservicio
Getxo
Getxo
bbk
Bizkaia
metro bilbao
EL CORREO

AREETA (GETXO)

# Santa Ana
## Uztailak 21-23

**Uztailak 21, barikua**
**17:00** Txikigunea, Santa Ana enparantzan.
**19:00** Suziria botatzea, eta buruhandien kalejira.
**20:30** Sardina-jana.
**22:30** Kontzertuak: Skimales eta Manifa taldeenak.

**Uztailak 22, zapatua**
**10:00** Magic karten lehiaketa.
**11:00** Kuadrillentzako jarduerak.
**11:30** Txikigunea.
**14:30** Herri-bazkaria.
**17:00** Txikigunea, Marrazki eta Pintura Lehiaketa, eta kuadrillentzako jarduerak.
**18:00** Igel-tokan, lehiaketa.
**19:00** Magia-ikuskizuna.
**20:30** Saiheski-jana.
**22:30** Erromeria.

**Uztailak 23, domeka**
**11:00** Hiruko Futbolean, lehiaketa; Santa Ana enparantzan.
**11:30** Txikigunea.
**12:00** Kuadrillentzako jarduerak.
**13:00** Paella-lehiaketa.
**13:45** Euskal dantzen erakustaldia.
**17:00** Ur-jolasak.
**17:30** Bits-festa.
**18:30** Herri-kirolen erakustaldia.
**19:00** Karaokea.
**23:00** Kaleko zinema, Santa Ana enparantzan.



**Skimales taldeak girotuko du barikuko gaua.** © SKIMALES

# Areetarren txanda!

Areetako Santa Ana auzoa festaz jantziko da uztailaren 21etik 23ra bitartean. Hala, egun horietan, auzokide denentzako hamaika aukera egongo da, ume, gazte zein nagusientzat. Barikuan, uztailaren 21ean, emango diete hasiera Santa Anako jaiei. Arrastiko 07:00etan izango da txupinazioa, hala ere, hori baino lehenago, inguruko neska-mutilak 17:00etan hasiko den Txikigunean jolastu ahal izango dira. Suziria amatatu bezain pronto, buruhandiak kalerik kale ibiliko dira, han eta hemen harrapatuko dituztenak astintzeko asmoz. Iluntzeko 08:30ean sardina-janagaz tripak asetzea aukeran egongo da, gero, Skimales eta Manifa taldeen doinuak entzungo dira Santa Ana enparantzan. Hurrengo egunean, zapatuan, Magic karten lehiaketagaz helduko diote egunari; ondoren, berbarako jolasak, lehiaketak, magia-ikuskizuna eta herribazkaria egongo dira. Gauean, erromeriak dantzan ipiniko ditu plazara hurbilduko direnak. Amaitzeko, domekan, hiruko futbolean lehiatuko dira hainbat eta hainbat; horren ostean, paella onena aukeratzeko lehiaketa egingo dute, besteak beste.






BERANGO

# Santa Ana Uztailak 22-26

**Uztailak 22, zapatua**
**11:30** Txuma memoriala, txirrindularitza-lasterketa. Antolatzailea: Berango Txirrindulari Elkartea.

**Uztailak 24, astelehena**
**19:00** Tor Magoaren ikuskizuna, Berango Antzokian.
**20:00** Txokolate-edana.
**20:30-23:00** Gazteentzako disko-festa, «Eni Music».
**23:30-01:00** Kontzertua: Wilson y Wilsonettis taldearena.
**01:00-04:00** Disko-festa.

**Uztailak 25, martitzena**
**11:00** Sokatira-txapelketa.
**12:30** Zezen mekanikoa eta puzgarriak.
**18:00** Zaldi-probak.
**18:30** Umeentzako herri-kirolak.
**19:30** Sardina-jana.
**20:30** Dantza-erakustaldia: Otxandategi Dantza Taldearena.
**23:00-02:00** Erromeria, Sorgiñe taldeagaz.

**Uztailak 26, eguaztena**
**12:00** Meza.
**13:00** Nagusientzako hamaiketakoa, eta Otxandategi Dantza Taldearen txikien ikuskizuna.
**18:00** Pilota-partidak, Nesken Gomazko Paleta Zirkuituaren barruan.
**19:00** Umeentzako ikuskizuna.
**20:00** Oilasko-pintxoen banaketa.
**21:00** Kontzertua: Los Charros mariatxi-taldea.


Otxandategiren dantzariek erakustaldia egingo dute martitzenean eta eguaztenean (txikiek).






GORLIZ

# Santiagoak uztailak 21-26

**Uztailak 21, barikua**

**15:00** Herri-bazkaria. Txartelak kultur etxean eros daitezke, agortu arte, edo uztailaren 17ra arte.
**16:30** Gazteentzako jolasak, Elizako plazan.
**19:45** Pregoiaren irakurketa eta txupinazoa, Elizako plazan.
**20:00** Taldeen jaitsiera nagusia.
**22:00** Zezensuzkoa, Elizako plazan.
**22:30** Gorliz Pine-Groove Festivala, Elizako plazan.
**23:00-03:00** Kontzertuak: Underground eta La 5º Reserva taldeenak, Ibarreta plazan.

**Uztailak 22, zapatua**

**11:30** Zezen eta zaldi puzgarrien entzierroa, Elizako plazan eta Itsasbiden.
**17:00** *Mondioring* erakusketa, Estratakoetxe parkean.
**17:00-19:30** Rally barregarria.
**19:30** Bigantxak (umeentzat), fanfarreagaz, Ondarganan.
**20:00** Errezitaldi poetikoa eta musikala, Sertutxenan.
**20:00** XXIII. Habanera eta Euskal Polifonia jaialdia, Ibarreta plazan. Abesbatzak: Txuma Olague (Sondika), Otxote Danok Bat (Portugalete) eta Lirain (Gorliz).
**22:00** Zezensuzkoa, Elizako plazan.
**23:00** Su ta Gar eta DJ Paul Swyle.

**Uztailak 23, domeka**

**09:00** XXXIX. Bakailao Txapelketa, Estratakoetxe parkean.
**11:00** XXXI. Eskulangintza-azoka, egun osoan, eta tailerrak ere bai; Artzelu plazan.
**12:00** Madalena-tailerra, gaztetxoentzat; Urris taldearen txosnan.
**13:30** Bakailao-lapikoen aurkezpena.
**13:30** Gazteentzako tortilla-txapelketa, Estratakoetxe parkean.
**18:30** XXII. Mozorro-lehiaketa, eta desfilea, Itsasbide kaletik behera, fanfarreak lagunduta.
**19:30** Umeentzako bigantxak, fanfarreagaz, Ondarganan.
**23:00** Zezensuzkoa, Elizako plazan.
**23:30** Kontzertua: Garilak 26 taldearena, Elizako plazan.

**Uztailak 24, astelehena**

**10:00** I. Txipiroi Txapelketa, saltsan.
**11:00-13:30** Zumba, Aikido, Txiki Box eta Boxinga, Elizako plazan.
**13:30** Txipiroien aurkezpena, Elizako plazan.
**17:00** Goitibeherak, Taberne Aurre kalean.
**17:30** VI. Xake partidak, umeentzat eta gurasoentzat; Ibarreta plazan.
**19:30** Gazteentzako jolasak, Ibarreta plazan.
**21:00** Play-backen txapelketa, Ibarretan.
**23:00** Zezensuzkoa, Elizako plazan.
**23:30** Kontzertuak: Rise to Fall taldearena eta DJ Markelinerena, Elizako plazan.

**Uztailak 25, martitzena**

**10:30** XXIX Nekazaritza-azoka, goiz osoan, Artzelu plazan.
**11:00-15:00** Haurrentzako parkea, Itsasbide kalean.
**11:45** Triki-kantu-dantza-poteoaren kalejira, Elizako plazatik; «Denok baserritar jantzita!»
**12:00** Meza nagusia, eta Lirain abesbatzaren kantaldia.
**12:30** Gorlizko IV. Kronoeskalada, Taberne Aurre kalean.
**12:40** Ohorezko aurreskua, eta Aratz taldearen dantza-erakustaldia, Elizako plazan.
**15:00** Herri-bazkaria, San Pedro plazan.
**18:00** Sagardotegi ibiltaria, San Pedro plazan.
**19:00** *Kantu Kolore*, Ibarreta plazan.
**19:30** Bigantxak: Euskal Herriko errekortadoreen ikuskizuna, fanfarreak lagunduta.
**20:00** Olerkiak Gorlizko Badiatik, Sertutxenan.
**22:00** Kalejira: Kulunkan taldearena.
**23:00** Zezensuzkoa, Elizako plazan.
**23:30** Kontzertua: Oxabi taldearena, Elizako plazan.

**Uztailak 26, eguaztena**

**11:00-15:00** Haurrentzako parkea, Ibarreta plazan.
**13:00** Nagusientzako luntxa, Jubilatuen etxean.
**18:00** Play-backen txapelketa, Ibarreta plazan.
**21:00** Bertso-saioa, Elizako plazan.
**22:00** Igoera, Itsasbide kaletik gora.
**23:00** Sari-banaketa (jaitsierakoa) eta «Urri» erretzea, Elizako plazan.







# Gelditu barik gozatzeko sei eguneko festa



© SUTAGAR

Gorlizko udako festa nagusiak abiarazteko atzerako kontaketa hasi da; izan ere, uztailaren 21etik 26ra bitartean ospatuko dituzte aurten Santiago jaiak. Pregoiaren irakurtzeko eta suziria botatzeko hitzordua 19:45ean ipini badute ere, herri-bazkariagaz hasiko dituzte gorliztarrek santiagoak. 15:00etan lotuko dira, baina, horretan parte hartu gura dutenek aldez aurretik erosi beharko dituzte txartelak, uztailaren 17a baino lehen. Ondoren, gazteentzako jolasak egongo dira, Elizako plazan, 16:30ean; esan legez, gero hasiko dituzte modu ofizialean ospakizunak. Ordutik aurrera, ez da gelditzeko tarterik egongo udalerrian, askotariko jarduerak antolatu dituztelako auzokide guztien gozamenerako, berbarako lehiaketak, kontzertuak, goitibeherak eta zezensuzkoak. Gainera, gastronomiazaleek hainbat hitzordu izango dituzte aurten, eta ohiko Bakailao Txapelketaz gainera, saltsan egindako txipiroi-platerik onenaren bila ere jardungo dute aurton, lehenengo aldiz. Ekitaldiak eta ospatzekoak aukeran nongura eta noizgura izango dira sei egunean Gorlizen.












GETXO

# Paella-lehia, Aixerrotako landan



© PATXI LOPEZ

Uztailaren 23an egingo dute Getxoko Nazioarteko Paella Lehiaketa, domekan, Aixerrotako landan. Aurtengoa 62. edizioa izango da, eta, urtero legez, Algortako gazte eta ez hain gazteek ilusio handiz hartuko dute egun osoko ekitaldi ospetsu hori. Batzuk zain daude Itxas Argia elkarteak lehiaketa-egunerako banatuko dituen olanak edo toldoak hartzeko. Ostera, jai-eremutik kanpo egongo direnak euren txokoak atontzen hasi dira. Itxas Argia elkarteak antolatzen duen jaiaren zati bat lur pribatuetan egiten da, eta ez da paella-txapelketa ofizialeko eremua. Hori dela eta, aurten hainbat neurri hartu ditu Udalak; izan ere, azken urteotan gero eta jende gehiago batzen da alde horretan, eta bertan eraikitzen diren etxolak «gero eta handiagoak» dira. Neurri horiek lurren jabeakaz adostu dira.

Ahal den neurrian, egurrez egindako eraikinek eta isiotuko diren suek eragin ditzaketen arriskuak saihestu nahi dituzte udal-arduradunek. Horretarako, bideak eta ebakuatzeko irtenbideak zehaztu dira: eremuaren barruan segurtasun-korridoreak ezarriko dituzte eta ur-hartuneak hurreratuko dituzte. Hori guztia udaleko hainbat sailen artean koordinatuta egingo dute, eta lekuan bertan jardungo duen lan-talde bat osatzea aurreikusi dute. Aldian-aldian gunera hurbilduko dira, eta segurtasun handiagoz jaia gozatu ahal izateko gomendioak helaraziko dizkiete kuadrillei.









# Toldo-banaketa

Ohi den legez, toldoak edo olanak aldez aurretik hartu beharko dituzte parte-hartzaileek. Hala, betiko olana daukatenek uztailaren 10ean eta 11n hartu beharko dute, iazko toldoaren zenbakia daukan papera erakutsita; Itxas Argia elkarteko egoitzara joan beharko dute, 19:00etatik 21:00etara arte. Ostera, olanarik ez dutenek eta zozketara joan gura dutenek, uztailaren 13a daukate zenbakia hartzeko, 19:00etatik 21:00etara arte. Egun berean egingo dute zozketa, 21:00etan. Azkenik, toldoak uztailaren 26an itzuli beharko dituzte, 19:00etatik 21:00etara bitartean. Salneurriei dagokienez, toldo erdia 45 euroan egongo da; toldo osoa, 90 euroan. Aurretik, 25 euroko seinalea eman beharko dute toldoa gura dutenek.

**Uztailak 23, domeka**

**08:00-09:30** Ibilgailuak eremura sartu ahal izango dira, gauzak uzteko.
**10:30** Paella-lehiaketan izena ematea.
**12:00** Txalaparta-deia, UKTESTegaz.
**12:05** Aurreskua.
**12:10** Itxas Argia taldearen dantzari txikien erakustaldia.
**13:30-14:30** Paellen aurkezpena.
**17:30** Sari-banaketa.
**18:30** Erromeria, Oxabi taldeagaz.
Egun osoan, umeentzako jolasak.



















ALGORTA (GETXO)

# «Ezelako sexu-erasorik gabe

TESTUA: **KEPA UGARTE MARTIARENA**
ARGAZKIA: **TMS KUADRILLA**

Algortako TMS kuadrilla 18 eta 19 urte arteko hogei neska inguruk osatzen dute. Iaz, kuadrilla-txapelketa irabazi zuten, euren auzoko San Inazio jaietan; horri esker, pregoia irakurtzeko aukera izango dute aurton. Aitortu dutenez, oraindino ez dute prestatu. Hala ere, argi daukate jaietan ere gero eta ohikoagoak diren sexu-erasoen kontrako mezua zabaldu gura dutela.

**Zeintzuk dira kuadrillen txapelketa irabazteko gakoak?**

Berbarako, gure ustez, lagun-taldeko kide guztiek kuadrillen jaitsieran parte hartzea oso garrantzitsua da. Hori ez da gure kuadrillari bakarrik ipintzen diogun baldintza bat; lagun-talde guztiek gauza bera egin beharko lukete. Adinez txikiak edo helduagoak izan, kuadrillen jaitsieran denek parte hartu behar dute. Modu berean, talde osoa batuta egotea funtsezkoa da. Kaleko giroa osasuntsua eta egokia izateak asko laguntzen du jaitsiera on bat egiteko, eta irabazteko aukerak izateko.

**Gaueko parrandak ez dira traba izaten eguneko probak egiteko orduan?**

Kar, kar. Orokorrean, kuadrillen txapelketako proba gehienak eguerdian izan ohi dira, 12:00ak inguruan; horrenbestez, denbora apurtxo bat izaten dugu lo egiteko eta gure burua kokatzeko. Hala ere, egunetik egunera, nekea handiagoa da; topera ibiltzen gara jaiek irauten duten egun guztietan.

**Idatzi duzue pregoia, prest daukazue?**

Iaz kuadrillen txapelketa irabazita, jaien hasierako pregoia irakurtzea dagokigu aurten. Hala ere, esan beharra dago, irakurriko duguna ez dela jaien liburuxkan agertzen den testu berbera. Horrela izaten da beti: jai-batzordeak askatasun osoa ematen dio kuadrilla-irabazleari euren pregoian zer esan gura duten erabakitzeko. Dena den, oraindino ez dugu prestatu.

**Hala ere, ideiaren batzuk izango dituzue buruan, pregoian esateko...**

Pregoia irakurtzeak jendeari hainbat ideia transmititzeko aukera ematen digu: egunerokoan eta, bereziki, herriko jaietan, ematen diren sexu-erasoen kontrako aldarria zabaldu gura dugu.



Festetan ezelako erasorik egotea ez dugu gura; sexu-indarkeriarik gabeko jaiak gura ditugu.

**Zer nabarmenduko zenukete Algortako San Inazio jaiez?**

Gazte gehienok elkar ezagutzen dugu, Algortan; pozgarria da denak kuadrillen jaitsieran parte hartzen ikustea. Jaiak hasi aurretik, dena prestatzen ibiltzea ere oso dibertigarria da.









# eko jaiak gura ditugu»



**Zelan balioesten duzue jai-batzordeak egiten duen lana?**
Ikaragarria da egiten duten lana: haiek antolatzen duten den-dena; gugaz pazientzia handia daukate!

**Zeuen burua jai-batzordean ikusten duzue etorkizunean?**
Bai. Ez legoke txarto. Hala ere, gazteegiak gara oraindino, horrelako saltsetan sartzeko.

**Zer gurago duzue jaietan parte hartzea ala ikusle izatea bakarrik?**
Dibertigarriagoa da probetan parte hartzea, beste kuadrillakaz. Gauean irtetean konturatzen gara jaietan parte hartzeak daukan garrantziaz.

**Berriro irabazteko aukerarik?**
Uf! Oso zail ikusten dugu aurten ere Algortako San Inazio jaietako kuadrillen txapelketa irabaztea.

**Zelan erakarriko zenukete jendea Algortako San Inazio jaietara?**
Oso giro polita egon ohi da Algortako San Inazio jaietan. Lehenago aipatu legez, ez da gauza bera festetara ikusle soilak bailiran etortzea edo jaietan murgiltzea, zu ere ospakizunetako eragile bihurtuz. Herriko festetan modu aktiboan parte hartzera animatu gura ditugu guzti-guztiak; kuadrillen proba denak irekiak dira, gainera. ◂

UDAKO IKASTAROAK
UZTAILA ETA IRAILA
JULIO Y SEPTIEMBRE
• MATRIKULA ZABALIK!
Ekainaren 1etik 27ra
Del 1 al 27 de Junio
Azterketa ofizialak prestatzeko, 5 ordu egunero!
UDAN ERE EUSKARAZ!
6-16 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT
PARA ALUMNOS DE 6-16 AÑOS
• IKASTAROA NOIZ?
Uztailaren 3tik 28ra arte, 9:00etatik 12:00etara
Del 3 al 28 de Julio, de 9:00 a 12:00h.
JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA
BULEGO ORDUTEGIA:
9:30 - 17:00
EUSKARA
Algortako etorbidea, 104
48991- Algorta (Getxo)
94 460 66 71
j.a.agirre@euskalnet.net
www.jagirre.net

# Saninazioak Uztailak 28-31

**Uztailak 28, barikua**
**Jaien hasiera**

**18:00** Kuadrillen jaitsiera irekia (derrigorrezko 1. proba, kuadrillen txapelketan parte hartzen duten taldeentzat), San Nikolas plazan hasita.
**19:30** Pregoia irakurriko du TMS taldeak (iazko kuadrilla-txapelketaren irabazleak); ikurrinari omenaldia; suziria botako du Chrysallis Euskal Herria adingabe transexualen familien elkarteak, San Nikolaseko liburutegian.
**20:00** XVI. Jota eta Arin-arin Txapelketa, Tellagorrin.
**21:30** Kontzertuak: Erasoka eta Gatz taldeenak, Tellagorrin. Aterki, Tellagorri, Alkartetxea, Ugartena eta Kaixo tabernek antolatu dute.
**22:00** Zezensuzkoa, Telletxe plazan.
**22:30** Kontzertuak: Txapito Guzman, Cecilia Payne eta Skakeitan taldeenak, San Nikolas plazan.
**22:30** Kontzertua: XVIII. Erromeria Tradizionala, Kasinon.

**Uztailak 29, zapatua**
**Umeen eta Gazteen Eguna**

Egun osoan, zirkua, herriko plazetan.
**09:30** Diana, kalez kale, Algortan.
**10:30** KAE 2 ligako Getxoko Estropada, Algortako Portu Zaharrean.
**11:00** Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, Bihotz Alai plazan. Saharar herriarenganako elkartasun-ekitaldia (tearen zeremonia, henna- eta iltze-tailerrak...) goiz osoan; gero, herri-bazkaria, Atfal taldearen ekimenez. Palestinako artisautza-erakustaldia eta idazketa-tailerra, Biladi elkarteak antolatuta.
**11:00** XII. Iñaki Deuna Esku-pilota Txapelketaren finalak, Algortako Batzokiko patioan.
**11:00** *Zurrumurrurik ez!* gunea, San Nikolas plazan.
**12:00** Moto-lasterketa, 2-4 urte arteko umeentzat, Tellagorrin. Ume bakoitzak bere motorra eroan beharko du.
**12:00** Gazteen hamaiketakoa, San Nikolas plazan.
**12:00** Grafiti-erakustaldia, San Nikolasen.
**12:00** Pintxo-eskalada-desafioa (derrigorrezko 2. proba, kuadrilla txapelketan izena eman duten taldeentzat), San Nikolas plazan.
**12:00** Euskal Herriko Txinga-eroate Txapelketa.
**12:00** Kantu-jira dultzaineroakaz eta pandero-joleakaz, Azebarri kulturgunean hasita. Antolatzaileak: Itxarkantu, Itxas Argia Kantari Kanta eta Azebarri kultur elkartea.
**12:15** Getxoko Beteranoen XIV. Estropada, Algortako Portu Zaharrean.
**12:30** Igel-toka eta tiragoma, Katean.
**13:00** Bertso-saioa: Andoni Egaña, Fredi Paia, Oihane Perea eta Beñat Vidal bertsolariena, Kasinon.
**13:00** Vinilo FMren zuzeneko irratsaioa, Algortako Dendak elkarteagaz, Tellagorri plazan.
**15:00** Gazte-bazkaria, San Nikolas plazan.
**15:00** Kantu-bazkaria, Azebarrin. Izen-ematea: azebarri@gmail.com. Antolatzaileak: Itxarkantu, Itxas Argia Kantari Kanta eta Azebarri kultur elkartea.
**17:00** XIX. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren lehenengo final-laurdena, Batzokiko patioan.
**18:00** XIX. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren bigarren final-laurdena, Batzokiko patioan.
**18:00** Euskotren ligako Getxoko IX. Estropada, Portu Zaharrean.
**18:30** KAE 1 ligako Getxoko 39. Estropada, Algortako Portu Zaharrean.
**18:30** Umeen jaitsiera, San Nikolasen hasita.
**18:30** Nagusien luncha, Zabala eskolan.
**19:00** Buruhandiak, kalerik kale.
**19:00** XIX. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren hirugarren final-laurdena, Batzokiko patioan.
**19:30** Nagusien dantzaldia, Trio Menta taldeagaz, Zabala eskolan.
**19:30** Umeentzako txokolate-edana eta dantzaldia, Bihotz Alai plazan.
**19:30** Perkusio eta dantza afrikarrak, eta eskulan-azoka, Telletxen.
**20:00** Kontzertua: Screamers & Skinners taldearena, Tellagorrin; Aterki, Tellagorri, Alkartetxea, Ugartena eta Kaixo tabernek antolatu dute.
**20:00** XIX. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren laugarren final-laurdena, Batzokiko patioan.
**22:00** Zezensuzkoa, Telletxe plazan.
**22:00** Gazteentzako DJa, Bihotz Alain.
**22:00** Giro berezia, txosnagunean.
**22:30** Kontzertua: Atomic Spliff, Kasinon.
**22:30** Kontzertuak: Nork Zer, Garrasika eta 2Zio taldeenak, San Nikolas plazan.





**Uztailak 30, domeka**
**Kuadrillen Eguna eta Txipiroiak**

«Baserritarrez edo arrantzalez jantzita irten zaitez kalera!»

Egun osoan, zirkua, herriko plazetan.

**08:30** XIX. Txipiroi Txapelketan izena ematea, Bihotz Alain.

**09:30** Diana, kalez kale, Algortan.

**11:00** Txalaparta-tailerra, UKTEST elkartearena, Telletxe plazan.

**11:00** Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, Telletxe plazan.

**12:00** Rally-desafioa (kuadrilla txapelketaren derrigorrezko 3. proba), Telletxeko errepidean.

**13:00** Bertso-saioa: Amets Arzallus, Etxahun Lekue, Nerea Elustondo eta Josu Landeta bertsolariena, Kasinon.

**13:00** XIX. Txipiroi Txapelketan lapikoen aurkezpena, Bihotz Alain.

**15:00** Kuadrillen bazkaria (kuadrillen txapelketaren derrigorrezko 4. proba), San Nikolas plazan.

**17:30** XIX. Txipiroi txapelketaren sari-banaketa, Bihotz Alain.

**17:30** Kuadrillen abesti-erakustaldi irekia (kuadrillen txapelketaren derrigorrezko 5. proba), San Nikolas plazan.

**18:00** XXIII. Kantxa Kirol Moda Herri-krosa.

**18:00** XIX. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren lehenengo finalerdia, Batzokiko patioan.

**20:00** XIX. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren bigarren finalerdia, Batzokiko patioan.

**20:00** Sound System Gaua: Weepah Sound Systemena, eta familia, lagunak...

**20:00** San Inazioetako jaitsiera tradizionala, Lau Bidetik Ereaga hondartzako barraketaraino. Heltzean, larraindantza, trikitilariak eta zezensuzkoa, Isidroren omenez (kuadrillen txapelketaren derrigorrezko 6. proba).

**20:30** Kontzertuak: Unidad Alavesa eta Sumision City Blues taldeenak, Tellagorrin.

**22:00** Kontzertua: Euskatalites taldearena, Kasinon.

**22:00** Giro berezia, txosnagunean.

**23:00** Kontzertuak: Travelling Brothers, Moonshakers eta Giuda taldeenak, San Nikolas plazan.

**Uztailak 31, astelehena**
**San Inazio Eguna**

Egun osoan, zirkua, herriko plazetan.

**09:30** Diana, kalez kale, Algortan.

**09:30** 72. Getxo Zirkuitua - 17. Ricardo Ochoa Memoriala. Irteera eta helmuga Arkotxan, Foru kalean.

**11:00** Umeentzako puzgarriak eta tailerrak, Bihotz Alai plazan.

**11:30** Dantzari-taldeen bilkura, Kasunen.

**12:00** Dantzari-taldeen kalejira, kalerik kale. Ibilbidea: Kasune, Sarrikobaso, Salsidu, Villamonte, Telletxe, Zabala, Basagoiti eta San Nikolas.

**12:00** Meza nagusia eta ohorezko aurreskua, San Inazio elizan.

**12:30** Euskal dantzen agerraldia, San Nikolas plazan.

**13:00** Umeentzako ur-gerra, Bihotz Alain.

**13:00** Bertso-saioa: Jon Maia, Igor Elortza, Aitor Mendiluze eta Xabat Galletebeitia bertsolariena, Kasinon.

**15:00** Bertso Maratoia: Jon Maia eta Igor Elortza bertsolariena.

**17:30** Bizkaiko Zaku-eroate Txapelketa eta Bizkaiko Herri-kirol Ligaren jardunaldia, Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak antolatuta, Telletxeko errepidean.

**17:30** Erraldoien eta buruhandien konpartsen bilkura, Kasunen. Parte hartuko dute Trapagaraneko Erraldoien Konpartsak, Deustuko Ondalan Konpartsak eta Agurra Getxoko Erraldoien Konpartsak.

**18:00** Erraldoien eta buruhandien konpartsen kalejira, ibilbidea honako hau izango da: Kasune, Sarrikobaso, Katea (erraldoien 1. dantzaldia), San Nikolas plazan (erraldoien 2. dantzaldia), Algortako Etorbidea, Kasino plaza (erraldoien 3. dantzaldia), Basagoiti Etorbidea, Torrene, Telletxe errepidea (erraldoien 4. dantzaldia).

**19:30** Bertso-maratoia: poteoa, tabernaz taberna.

**20:00** XIX. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren finala, Batzokiko patioan.

**20:30** Kuadrillentzako play-backen saio irekia (kuadrilla-txapelketaren 7. proba), San Nikolasen.

**21:00** XIX. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren sari-banaketa, Batzokiko patioan.

**22:00** Zezensuzkoa, Xabier Imaz *Pechotoro* zenaren omenez, Telletxe plazan.

**22:00** Kontzertuak, Kasinon.

**22:00** Kuadrilla-txapelketaren sari-banaketa; ostean, dantzaldia Bidean taldeagaz, San Nikolasen.

**23:00** Su artifizialak, Pablo pirotekniarenak, Ereaga hondartzan.

***Oharra:** Egitarau hau behin-behinekoa da; aurrerantzean, aldaketaren bat egon liteke.






Sukaldean

# Txipiroi goxoenak ea zeinek egin



Algortako Jai Batzordeagaz elkarlanean, San Inazio jaietako txipiroi-lehiaketa antolatzeko ardura Remueve, Cabrón! kuadrillak hartu zuen iaz; lagun-talde edadetuenek horri eusteko indarrik ez zutelako. Hala ere, horrek ez du esan gura egungo antolatzaileek lapiko-kontuan esperientzia ez daukatenik. Remueve, Cabrón! taldeko kide baten emaztea den Ana Asama Gómezek esan digunez, ekitaldiaz arduratu aurretik, urtero aurkezten ziren txipiroi-lehiaketara. Bera da senarraren lagun-taldearen bozeramailea antolaketan. Ogibidez, sukaldaria da, eta ondo baino hobeto daki txipiroiak tintan zelan egiten diren. Asamaren ustez, osagaiak freskoak izatea da garrantzitsuena; hori eta mimoz prestatzea. Berak kontu handiz sueztitzen du tipula, denbora luzez. «Nik tipula gorria erabiltzen dut. Txipiroiak beste lapiko batean ipintzen ditut sutan, tipula handiagoakaz», azaldu duenez. Sueztitzen ipinitako tipula prest dagoenean, tinta, txipiroiakaz batera egindako tipula eta bigarren lapiko horretan sortutako salda botatzen dizkio Asamak. Ondo nahastu ostean, ardo zuriz bustitzen du hori guzti hori, eta txinoagaz iragazten du; hala, ordurako saltsa eginda izanda, txipiroiak bertan ipintzea baino ez zaio falta.

**OSAGAIAK:**
Txipiroiak, tipula gorria edo zuria, txipiroi-tinta eta tinta-poltsak, ardo zuria (aukeran), oliba-olioa eta gatza.

**XVIII. TXIPIROI-LEHIAKETA**

**Uztailak 30, domeka. Bihotz Alai plazan.**
**08:30** Izen-ematea, 10 euro.
**13:00** Lapikoen aurkezpena.
**17:30** Sari-banaketa.

Bikain jatetxea
Bariku eta zapatuak 12:00etatik gauerdira
Plater-konbinatuak egunero 12:00-17:00etara
ETXERAKO ZERBITZUA! 94 430 81 73
Sarrikobaso 2, Algorta
(Telletxe metro geltoki ondoan)


hiruka
Uribe Kostako astekaria
Hurrengo astekaria irailaren 14an argitaratuko dugu

Bitartean, albisteak, jaien bideoak eta abarrak hemen:
hiruka.eus

info+: 944 911 337
hiruka@hiruka.eus

GAURKO
1967
50. URTEURRENA
GIZONENTZAKO MODA
ZABALA, 9·ALGORTA
944 607 084

Etxean nahi ditugulako!
HATOR
TABERNA
NESKA MUTIL ETXERA
Salsidu, 20
ALGORTA

Amets
Kamisetak eta Fotokopiak
944 601 031
688 644 967
Fax: 944 608 662
www.ametscamisetas.com
amets@ametscamisetas.com
Telletxe, 13 - 48993, ALGORTA

MILAGROS
Lorategi-terraza eta kanpoko jantokia
Fusio Sukaldaritza
Japoniar eta latindarra
Sopelana-Plentzia errepidea
Bideondo 1 - Barrika
94 677 02 35
www.milagrosrestaurante.com
Egunero irekita, 12:00etatik 03:00etara

PEÑA Athletic Club GOIKOA
ANDER HERRERA
GOIKOA TABERNA
Alango 14, Algorta
94 602 53 93

PLENTZIA

# Saratxagako jaiak
## Uztailak 29

**Uztailak 29, zapatua**

**12:30** Meza eta ohorezko aurreskua.
**14:00** Herri-bazkaria. Izena emateko, Turismo Bulegora joan daiteke; 5 euro.
**15:30** Dantzaldia, Xaibor DJagaz.


© DJ XAIBOR

# Saninazioak Uztailak 31

**Uztailak 31, astelehena**

**11:00** Txupinazoa. Ostean, umeentzako jolasak, Eliz plazan.
**13:00** Meza nagusia.
**13:30-15:00** Triki-poteoa, herriko alde zaharrean, tabernaz taberna.
**19:00** Dantza-ikuskizuna: Itxas Eder taldearena, Eliz plazan.
**20:30** Dantzaldia, Xaibor DJagaz, Eliz plazan.
**22:00** Zezensuzkoaren ibilaldia, Azurtegiondon.


© XABI ABURRUZAGA

# Oroitzeko aukera dago


© TXINPARTA ELKARTEA

Abuztuaren 1etik 4ra bitartean, *Lur azpitik lur-azaleratuz* erakusketa ipiniko dute, Goñi Portal kultur etxean. Horren bidez, San Kristobalgo frankisten espetxean preso egon zirenen eta Ezkaba mendiko magaleko kanposantuan lurperatu zituztenen oroimena berreskuratu gura izan dute Txinparta eta Aranzadi elkarteek. Erakusketak agerian uzten ditu kartzela horretan bizi zirenen baldintza gogorrak; bizirik irautea zen euren helburu bakarra, diotenez.




Gure bezeroen eskura honakoak jartzen ditugu:

**EKITALDIETAN:** komuna-eramangarriak, modulu aurrefabrikatuak, txoznak, hesiak (itxiera, izuaren aurkakoak, oinezkoentzakoak...)

**ERAIKUNTZA-ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK:**
- Modulu aurrefabrikatuak (komunak, bulegoak, aldagelak), eskorak, segurtasun elementuak, itxiera-hesiak.
- Komuna automatikoak eta mantentze-lan berezituak.

**Bermeo bidea, 5. Mungia. 94 471 14 41 - indarlan@indarlan.biz**


Zure herriko jaien bideoa ikusi gura duzu?
Jaien edo ekitaldi bereizgarrienen bideoak, herriko protagonistakaz, elkarrizketak, jai-giroaren irudiak...
Udako jaietan ere begira eta alboan izango gaituzu!
hiruka
Sartu YouTubeko HIRUKAren kanalera:
HIRUKA KOMUNIKAZIO-TALDEA
SONY

GETXO/LEIOA

# Itzubaltzeta eta Pinuetako jaiak

**Uztailak 30, domeka**
**Nekazari Eguna**

**09:00** Nekazaritza Azoka, Erromotruken laguntzaz, Kalamua kalean.
**12:00** Grafiti Eguna, Kalamua kalean. Gaia: jai-batzordearen 50. urteurrena.
**12:00** Poteo alaitua, Zasi Eskolagaz.

**Abuztuak 1, martitzena**
**Brindis Eguna**

**12:30** Poteoa, batukadagaz.
**15:00** Herri-bazkaria, Getxoko Etorkinen Plataformak antolatuta, Ibaiondon.
**19:00** Goitibehera guztiak, txosnagunean.
**19:30** Goitibeheren kalejira, herrian.
**21:00** Goitibeheren igoera, Txistulariaren aldapan.
**22:30** Txistor-jana, Dolores Ibarruri plazan.
**23:30** Erromeria, Dolores Ibarruri plazan.
**23:59** 50. urteurreneko brindisa eta sorpresa, Dolores Ibarruri plazan.

**Abuztuak 2, eguaztena**
**Txupinazoaren Eguna**

**11:30 - 14:30 / 17:30-19:00** Txikigunea eta Txu-txu trena, Santa Eugenian.
**12:30** Felix Arnaizi omenaldia, Ibaiondon.
**12:30** Izen-ematea, edozein jaki egiteko sariketan, Cervantes plazan.
**14:30** Jakien aurkezpena, Cervantesen.
**16:00** Edozein jaki egiteko sarien banaketa, Cervantes plazan.
**16:30** Kuadrillen arteko olinpiadak, Cervantes plazan.
**18:00** 50 urteotan jai-batzordean egon direnei omenaldia, eta flashmob-a, Kolas plazan.
**18:30** Buruhandiak, kalerik kale.
**19:30** Pregoia eta txupinazoa, Kolasen.
**19:45** Kalejira, fanfarreagaz, kalerik kale.
**20:30** Dantza-erakustaldia: Zasi Eskola eta Berantzagirena, txosnagunean.
**20:30** Bertso-saioa, txosnagunean.
**22:00** Zezensuzkoa, trenbide-pasagunea zegoen lekutik.
**22:00** Transformismoa, Ganeta plazan.
**23:00** Jaietan gozatu! Erasotzaileak akatu! manifestazioa, Itzubaltzetako Emakumeen Asanbladak deituta, txosnagunetik abiatuta.
**23:30** Disko-festa, DJ Bullegaz eta herriko disko-jartzaileakaz, txosnagunean.

**Abuztuak 3, eguena**
**Sombreru Eguna**

**11:30 - 14:30 / 17:30-19:30** Txikigunea eta Txu-txu trena, Santa Eugenian.
**12:00** Trikitia, kalerik kale.
**15:00** Preso eta iheslari politikoen aldeko bazkaria, txosnagunean.
**19:00** Elkartasun-taloak, Gobelondo kalean.
**20:00** Harpa-kontzertua, elizan.
**21:00** Txapel-jaurtiketaren txapelketa, Amalloa kalean.
**21:00** Bertso-jira, kalerik kale.
**21:00** Show Gaua, Dolores Ibarruri plazan.
**21:15** Dantza-omenaldia, Zasi Eskolarena, txosnagunean.
**22:30** Kontzertuak: bertoko talde batena eta Soziedad Alkoholikarena, txosnagunean.
**22:30** Ekitaldia: jai-batzordeak 50 urte, Txosnagunean.

**Abuztuak 4, barikua**
**Kuadrilla Eguna**

**11:30 - 14:30 / 17:30-20:30** Txikigunea eta Txu-txu trena, Santa Eugenian.
**12:00** Txistulariak, kalez kale.
**12:00** Erretiratuen bazkaria, nagusien etxean.
**13:30** Muztio Rallya, kalerik kale.
**14:00** Batukada, Sarek antolatuta: *Entzungo gaituzte: dispertsiorik ez!* Santa Eugeniatik abiatuta.
**15:00** Belaunaldien arteko kuadrilla-bazkaria, Ibaiondon.
**17:00** L. Poteo-rallya, Gobelaurreko errotondan.
**18:30** Fanfarrea, herrian.
**19:00** Elkartasun-taloak, Gobelondon.
**19:00** Dantzaldia, Ganetan.
**19:00** Herri-kirolak, Maiatzaren Batan.
**19:00** Txahalkia dastatzea, jai-batzordeak antolatuta, Eusko Labelen babesagaz, Maiatzaren Batan.
**22:00** Play-backak, Dolores Ibarrurin.
**22:30** Kontzertuak: bertoko talde batena, Huntzarena eta Joxe Replayrena, txosnagunean.
**23:59** Lekeitioko Deabruak, Dolores Ibarruri plazan.

**Abuztuak 5, zapatua**
**Euskal Eguna**

**08:00** Diana herrikoia, txosnagunean.
**09:00-11:00** Putxeren V. lehiaketan izen-ematea, Ganeta plazan.
**11:30 - 14:30 / 17:30-19:00** Txikigunea eta Txu-txu trena, Santa Eugenian.
**11:00** Motor klasikoak, txosnetan.





## Uztailak 30-Abuztuak 6

**11:00** Auto klasikoen topaketa, txosnagunean.
**12:00** Trikitilariak, kalerik kale.
**12:00** Erromoko Kantariak, kalez kale.
**12:00** Molto motorren lasterketa, Gobelaurre parkean.
**13:00** Aerobica, txosnetan.
**14:00** Putxeren aurkezpena. Jarraian, sari-banaketa, Ganetan.
**15:00** Etxe Merkeen Eguna.
**17:00** Tiragoma, Ganetan.
**18:00** Txosnen arteko II. Ur-guda Dantza, Xake plazan.
**18:30** Ezusteko proba, Itzubaltzeta Gaztetxeak antolatuta, Gobelondon.
**19:00** Herri-kirolak, Maiatzaren Bata kalean.
**20:30** Gala-dantzaldia, Ganeta plazan.
**21:00** XX. Ska Reggae Jaialdia, txosnagunean.
**21:00** Tekno-gaua, Dolores Ibarruri plazan.
**21:30** Amnistiaren aldeko kalejira, txosnagunetik hasita.
**22:00** Zezensuzkoa, trenbide-pasagunea zegoen lekutik hasita.
**23:00** DJak, Ganetan plazan.
**23:59** Preso eta iheslari politikoak etxeratzearen aldeko kalejira, txosnagunetik hasita.

**Abuztuak 6, domeka**
**Tortilla Eguna**

**06:00** Alpargata pertsonaien topaketa, txosnagunean.
**07:00-07:30** Tanga- eta iturri-lasterketak, Santa Eugenia kalean.
**08:00** Diana herrikoia, txosnagunean.
**11:00** Puzgarriak, Santa Eugenia plazan.
**12:00** Tortilla-lehiaketan izena ematea, Santa Eugenia kalean eta txosnagunean.
**12:30-14:30** Tortillen aurkezpena, Santa Eugenia kalean eta txosnagunean.
**14:30** Munduko dantzak, txosnagunean.
**16:30** Plaza-dantza, txosnagunean.
**17:00** Bingo musikatua, txosnagunean.
**17:30** Tortilla-lehiaketaren sari-banaketa.
**18:30** Bilbainadak: Los Txikis, txosnetan.
**19:00** Buruhandiak, kalez kale.
**19:00** Sardina-jana, txosnagunean.
**21:00** Sari-banaketa, txosnagunean.
**23:30** *Pobre de mi*, kalerik kale.
**23:55** Azken traka, txosnagunean.
**23:59** Azken afaria eta playbacken errepikapena, txosnagunean.

## Herri-krosak dozena bat urte

Abuztuaren 3an egingo dute Herri Krosaren 12. edizioa, eguenean, Itzubaltzeta/Romoko eta Pinuetako jaien barruan. Hala, txikiek (3-9 urte) 450 metroko ibilbidea egin beharko dute; gazteek (10-15 urte), 900 metrokoa; eta 16 urtetik aurrerakoek lau kilometrokoa. Krosa 19:45ean hasiko da, Ganeta plazan; bertan, izena eman beharko dute parte-hartzaileek, 17:30etik 19:30era bitartean.




© ERROMOKO HERRI-KROSA



ITZUBALTZETA/ROMO ETA PINUETA

# «Jendea pozik ikustea nahikoa da guretzat»



TESTUA: **KEPA UGARTE MARTIARENA**
ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

Aurten, 50 urte bete ditu Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako Jai Batzordeak. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi prestatu dituzte, herriko festen egitarauaren barruan. Besteak beste, mende erdiz jaien antolaketan musu-truk jardun duten guztiei gorazarre egingo diete, suziria botako duten egunean.

**Zein dira urte hauetan guztietan antolatu dituzuen jaien ezaugarriak?**
Jai euskaldunak, herrikoiak, parte-hartzaileak eta parekideak bultzatu izan ditugu 50 urte hauetan. Horrez gainera, adin guztietako lagunentzako ekitaldiak antolatzea izan da gure helburua, sortu ginenetik gaur egunera arte.

**Zer esan gura zeniekete jai-batzordetik igaro diren guztiei?**
Ondorengo belaunaldiei eman dieten bultzada eskertu gura genieke, batez ere, hasierako urteetan jai-batzordean ibili zirenei; eurek eman diete izena eta izaera Itzubaltzeta / Romo herriari, 50 urteotan. Mende erdian, kolorez bete dituzte kaleak: eurek asmatu zuten poteo-rallya; garai batean, pultsu-txapelketa egiten zuten... Domekako tortilla-lehiaketa ere eurek ezarri zuten.

**Musu-truk antolatzen dituzue jaiak...**
Bai. Herritarrak pozik ikustea nahikoa da guretzat. Jaiek irauten duten bitartean, gauez eta egunez ikusten duzu jendea kalean: lagun askok ordu gutxi batzuk lo egiten dute, goiz altxatzen dira, eta, berriro zapia lepoan ipini ostean, kalean daude beste behin ere. Horrek guztiak animatzen gaitu jaiak antolatzen jarraitzera.

**Hala ere, den-dena bertan behera uzteko gogoa ematen duen uneren bat egongo da, ezta?**
Gutxi gorabehera, urtean hamar hilabetez ibiltzen gara lanean: Olentzeroren etorrera, Kuadrillen Eguna, Aratusteak... antolatzen ditugu. Hala ere, Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiak hasteko aste bi falta direnean izaten da unerik delikatuena. Jai-batzordearen kideok hainbat ekitaldi izaten ditugu zehazteko, eta dena ondo irtetea da guztion nahia; horregatik, tentsioa eta urduritasuna nabari daitezke batzarretan. Urte luzez festen antolaketan jardun dugunok ondo dakigu horiek guztiak zelan kudeatu...

**Trabak ere ez ziren gutxi izango, urte hauetan guztietan...**
Udalek ipintzen dizkigute trabarik handienak: ez dakit zenbat paper eta baimen bete eta eskatu behar izaten ditugun; anbulantziakaz ere arazoak izaten ditugu... Eta ezin dugu ahaztu behin Espainiako Auzitegi Nazionalean aurkeztu behar izan genuela, liburuxkako iragarki bat gora eta behera; azkeneko urteotan izan dugun arazorik potoloena hori izan da.

**Zein da 50 urtean jaiak antoltzen ibiltzeko sekretua edo gakoa?**
Herria ezagutzea eta Itzubaltzeta/Romo horren berezia izatea dira gakoak; Romo da sekretua!

**Ekitaldi berezirik antolatuko duzue mende erdia ospatzeko?**
Kontzertu bereziak, belaunaldien arteko ekitaldia eta bazkaria, gala-dantzaldia eta omenalditxoa egongo dira; urte hauetan guztietan jai-batzordean ibili direnei gorazarre egingo diegu.

**Eta beste 50 urtez aurrera jarraitzeko prest zaudete?**
Bai, noski! Gero eta gazte gehiago etortzen da jai-batzordearen batzarretara; txanda-pasa egiteko jende nahikoa daukagu. Jai-batzorde honek beste ehun urte gehiago irautea nahiko genuke, gutxienez! ◂

BERANGO

# Santo Domingo

## Abuztuak 4-6

**Abuztuak 4, barikua**

**12:00** Meza, Santo Domingo elizan.

**13:00** Nagusientzako hamaiketakoa, eta Otxandategi dantza-taldearen txikien erakustaldia, eliza aldean.

**19:00** Umeentzako disko-festa, eliza aldean.

**19:30** Pilota-partidak, udal-pilotalekuan.

**19:30** Txistulariak.

**20:00** Hanburgesa-jana eta sagardoa, eliza aldean.

**21:00** Otxandategi abesbatzaren emanaldia, eliza aldean.

**23:00-02:00** Dantzaldia, Drindots taldeagaz, eliza aldean.

**Abuztuak 5, zapatua**

**12:00-14:00 / 17:00-20:00** Umeentzako parkea; tirolina, puzgarri txikiagaz; eliza aldean.

**12:00** Berangoko IV. Pala Txapelketa, emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat, pilotalekuan.

**19:00** Idi-probak, Torrekolanda herri-kirol taldeak antolatuta, udal-probalekuan.

**20:00-21:00** Bilbainadak: Los Txikis taldearenak, eliza aldean.

**21:00** Oilasko-pintxoak eta sagardoa denontzat, eliza aldean.

**22:30-23:45** ABBA taldeari gorazarrea (ABBA Revival taldearena), mozorroak, zozketa; eliza aldean.

**24:00-03:00** Disko-festa, eliza aldean.

**Abuztuak 6, domeka**
**Bakailao Jai Herrikoia**

**11:30-13:30 / 16:00-18:00** Ur-puzgarriak, eliza aldean.

**13:30-14:30** Bits-festa, eliza aldean.

**17:00-19:00** Umeentzako tailerrak, eliza aldean.

**19:00** Txokolate-edana, eliza aldean.

**20:00-23:00** Dantzaldia, Maran taldeagaz, eliza aldean.

**22:00** Txorizoak sagardotan, denontzat.



© DRINDOTS



## Bakailao Eguna

Bakailao Egunak 2006an egin zituen 50 urte. Hurrengo urtean, ostera, txapelketa-izaera alde batera utzi, eta jai-herrikoi bihurtu zuten Berangoko kuadrillek. Berangoztar askok akorduan dauzkate Gure Txoko Begutxo elkartearen kideak ziren Mari Paz Domingo, Manu Bilbao, Juan Luis Ormaetxea eta María Basaguren; urte haietan denetan eurak arduratu ziren sariketa antolatzeaz. Halere, adina eta osasun-arazoak tarteko, egitekoari uko egin behar izan zioten. 2007an, lehia alde batera uztea erabaki zuten kuadrillek; eurek hartu zuten Gure Txoko Begutxoko lagunen lekukoa. Hala, urtero, udaletxearen aurreko landan batzen dira berangoztarrak eta hainbat kanpotar, bakailaoa pil-pilean prestatzen eta dastatzen gozatzeko. Bide batez, herriko lagun-taldeen arteko harremanak sendotu gura dituzte. Gastronomia-erakustaldiaz gainera, umeentzako jolasak eta dantzaldia egoten dira; aurton, berbarako ur-puzgarriak, bits-festa, tailerrak eta txokolate-edana izango dituzte neska-mutilek. Dantzaldia Maran taldeak girotuko du.

GORLIZ

# Andramariak Abuztuak 4-6



Paella-lehiaketa egingo dute domekan. © GORLIZKO UDALA

**Abuztuak 4, barikua**

**11:00** Txupinazoa eta kalejira.
**11:00-14:30** Umeentzako puzgarriak eta jolasak, eta XLIV. Tortilla Txapelketa (umeentzat).
**12:00** Itxas Eder taldearen dantzaldia.
**13:15-14:00** Tortillen aurkezpena.
**17:30** Umeentzako ur-puzgarriak.
**20:00** Disko-festa, umeentzat.
**23:00** Zezensuzkoa.
**23:30** Zipote Records eta Urrats taldeen kontzertuak.

**Abuztuak 5, zapatua**

**10:00** XXX. Herri-krosa, gazte eta helduentzat, auzoan.
**11:00** Meza.
**12:00** Ohorezko aurreskua, eta Gorlizko Aratz dantza-taldearen emanaldia.
**13:00** Luncha, jubilatuentzat, baselizaren atarian bertan.
**18:30** Herri-kirolak.
**20:30** Dantzaldia, Gaupasa taldeagaz.
**23:00** Zezensuzkoa.
**00:00** Kontzertua, Talky Big Band taldearena.

**Abuztuak 6, domeka**

**11:00** LVII. Paella Txapelketa (izen-ematea, kioskoan).
**11:00** Trikitilariak landetan ibiliko dira.
**13:30-14:00** Paellen aurkezpena, landaren erdialdean.
**18:00** Paella Lehiaketaren sari-banaketa.
**19:30** Dantzaldia, DJagaz.
**22:00** Zezensuzkoa.

***Oharra:** Ezin izango da landetan txabolarik edo antzekorik egin, surik ere ez. Antolatzaileek esango dute non ipini behar izango duen parte-hartzaile bakoitzak. Barbakoak baino ezin izango dira erabili; lurrean ez egin surik.

DIDAK hamilton
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana
-Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
-Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak
Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TF. 94 676 30 12 - info@didakhamilton.com

GORLIZ

## Egun bateko jaia

San Lorentzo eguna ere ospatuko dute Gorlizen, abuztuaren 10ean. Hala, falkoneria-erakustaldia (11:00), umeentzako puzgarriak (11:30), saiheski-jana eta sagardo-edana (14:00), jolasak (18:00) eta dantzaldia egongo dira (20:00); denak, Gandia plazan.

GETXO

## San Lorentzo Azoka, Algortan

Abuztuaren 10ean, eguaztenean, San Lorentzo eguneko nekazaritza-azoka egingo dute, 10:00etatik 14:30era arte, Algortako San Nikolas eta Bihotz Alai plazetan. 52 baserritarrek eta ekoizlek parte hartuko dute, guztira, Getxoko Kultur Etxeko arduradunek jakinarazi dutenez. Goiz osoan, bisitariek euskal baserriko produktu ezagun asko erosi ahal izango dituzte. Bitartean, trikitilariak eta gaitariak egongo dira, azoka girotzeko. Goiz erdian, ekoizle askok nahitaezko hitzordua izango dute Idiazabal jatorrizko deiturako gaztaren, barazkien eta landareen lehiaketa tradizionalak egongo direlako. «Produktuen kalitatea eta dibertsitatea pizgarri nagusiak dira bisitarientzat; eta horiei esker, Getxoko San Lorentzokoa Bizkaiko azoka garrantzitsuenetako bat da», bertoko kultur iturriek diotenez. Biotz Alai abesbatza arduratuko da San Lorentzoko jaiari akabua emateaz: ohiko kontzertua emango du abestaldearen izena daroan plazan, 22:00etatik aurrera; sarrera, doan.

## ASTRABUDUA (ERANDIO)

# San Lorentzo Abuztuak 9-13

### Abuztuak 9, eguaztena

**11:00** Txiki-kalejira, Josu Murueta plazatik.
**11:30** Txikien txupinazoa, San Lorentzo kalean.
**11:45** Tailerrak eta puzgarriak, San Lorentzo kalean.
**11:45** Jaioberriei harrera, San Lorentzon.
**12:30** Tirolina-jaitsiera, Tomás Aldekoan.
**19:00** Kuadrillen jaitsiera, Axpurutik.
**20:30** Pregoia eta txupinazoa, Josu Murueta plazan.
**20:45** Larrain Dantza, Mendiguren plazan.
**22:00** Dantzaldia, Josu Murueta plazan.
**22:30** Kapela-lehiaketa, Josu Muruetan.
**22:30** Kontzertuak: Jonan JDJ, Astrabu en Aktivo, Tierra Kritikal, Roni Ross eta Jampoleta DJa, Mendiguren plazan.

### Abuztuak 10, eguena

**11:00** Tortilla-lehiaketan izen-ematea, Tomás Aldekoa plazan.
**11:00** *Corto caja sorpresa* lehiaketan izen-ematea, Tomás Aldekoan.
**11:00** Tailerrak eta puzgarriak, San Lorentzo kalean.
**11:00** VIII. Molto GP lasterketa, San Lorentzo kalean.
**11:30** Bike balance, Mendiguren plazan.
**12:00** Tarta-lehiaketan izen-ematea.
**12:00** Meza nagusia, elizan.
**13:00** Soka-aurreskua, Bilboko Kontsulatua kalean.
**16:00** *Humor amarillo*, San Lorentzon.
**17:30** Txikien play-backak, Josu Muruetan.
**18:00** Txikien disko-festa, Josu Muruetan.
**18:00** Helduentzako bits-jaia.
**18:30** Txakur Patruila bisitan, J. Muruetan.
**19:30** Euskal dantzak, Mendiguren plazan.
**21:00** Umore-bakarrizketa, Boca Beats bikotearena, Josu Muruetan.
**22:15** Film laburrak, Josu Muruetan.
**22:30** Kontzertuak: Kauce, Hesian eta Diversion Rock taldeenak, Mendiguren plazan.

### Abuztuak 11, barikua Euskararen Eguna

**11:00** Tailerrak eta puzgarriak, txikientzat, San Lorentzo kalean.
**11:00** Paddle surfa, itsasadarrean.
**11:30** Ur-txirrista, New-rako jaitsieran.
**13:00** *Euskaraz berba eta eskulanak egin itzazu familiagaz*, Mendigurenen.
**13:30** Bits-jaia, San Lorentzo kalean.
**15:00** II. Elkartasunezko herri-bazkaria, Mendiguren plazan.
**16:15** Zordball-era igo, San Lorentzon.
**17:00** Irrien Lagunak, Josu Muruetan.
**17:30** Euskal Color Party, Mendigurenen.
**18:30** Kantaguneren kalejira, J. Muruetatik.
**20:30** Bilbainadak: Los Txikis taldearenak, Josu Murueta plazan.
**21:30** Sexu-erasoen kontrako ekitaldia.
**22:15** Bideo-aurkezpena: *40 años de la comision de fiestas*, Mendigurenen.
**22:30** *Por no llamarlo playback* ikuskizuna, Mendiguren plazan.
**01:00** Dantzaldia, Kresala taldeagaz, Mendiguren plazan.

### Abuztuak 12, zapatua

**10:00** Marmitako Txapelketan izena ematea, Tomas Aldekoan.
**11:00** XIII. Xake Txapelketa, Lurberrin.
**11:00** Tailerrak, puzgarriak eta marrazkien lehiaketa, San Lorentzo kalean.
**12:00** Askotariko kirolak, futbol-zelaian.
**12:00** Tiragoma, Mendiguren plazan.
**16:00** XXIII. Arrantza Lehiaketa, itsasadarrean.
**18:30** Herri-lasterketa.
**20:00** Txorizo-jana, Meso eta Atxe kaleen artean.
**20:00** Kick boxingeko erakustaldia, Josu Murueta plazan.
**21:45** La Felliniren emanaldia, Josu Murueta plazan.
**23:00** Goatekea, Josu Murueta plazan.
**23:00** Kontzertuak: Porco Bravo, Desakato eta Gora Herria taldeenak, Josu Murueta plazan.

### Abuztuak 13, domeka

**11:00** Paella-lehiaketan izena ematea, Tomas Aldekoa plazan.
**11:00** Tailerrak eta puzgarriak, San Lorentzo kalean.
**13:00** Bits-jaia, San Lorentzo kalean.
**17:00** I. Futbol Txapelketa, futbol-zelaian.
**18:00** Herri-kirolak, Bilboko Kontsulatua kalean.
**18:30** Txapel-jaurtiketa, Bilboko Kontsulatua kalean.
**18:30** Dantza-lehiaketa, Josu Muruetan.
**22:00** Bakarrizketa: Raúl Fervérena, Josu Murueta plazan.
**23:00** Kuadrillen txapelketaren sari-banaketa eta lagun-taldeei eskerrak ematea, Josu Muruetan.
**23:45** Ulpianori agurra eta azken traka, Josu Murueta plazan.




URIBE KOSTAKO KOMUNIKAZIO-TALDEA
Jarrai gaitzazu:
hirukaEUS
hirukaEUS
@hirukaEUS
hirukaEUS

PORTU ZAHARRA

# Portu Zaharreko jaiak Abuztuak 11-15

**Abuztuak 11, barikua**

**12:00** Jaien hasierako txupinazoa.
**12:15** Ume-kuadrillen jaitsiera, Kasinotik hasita, Ku-Klux fanfarreagaz.
**13:00** Euskal diskoteka, Paco eta Urtzagaz, Portuko plazan.
**18:00** Jaien hasierako txupinazoa. Kuadrillen jaitsiera Ku-Kluxegaz, gasolindegian hasi eta, errepidetik, porturaino. Bigantxa Solte Dago iazko kuadrilla txapelketaren irabazleak eroango du Txo panpina.
**19:30** Sardina-jana, Portu Zaharreko plazan. Bigantxa Solte Dago kuadrillak irakurriko du pregoia. Txo panpina zintzilikatuko dute.
**20:00** Portu Zaharreko Jaiak II. Boxeo Gaua, Izarrak Boxingek antolatuta, beheko berdegunean.
**21:30** Los Binilos, Portu Zaharreko plazan.
**21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao doktorearen plazan.
**21:30** Reggae-gaua, agerleku handian.
**22:00** Kontzertua, gazte-txosnan.

**Abuztuak 12, zapatua. San Nikolas Emakumeen Eguna / Arrantzale Eguna**

**10:30-11:00** Donibane-zuhaitza (sokamuturra), hondartzatxoan.
**12:00** Igel-toka eta tiragoma-txapelketak, Portu Zaharreko plazan.
**13:00** Kantu-poteoa, portuan.
**13:00** *Los Barruetabeña en fiestas del Puerto Viejo*, Utopianek antolatuta.
**17:00** V. Rugby Tokata Lehiaketa, Getxo Rugby Taldeak antolatuta, beheko berdegunean.
**17:30** Buruhandien eta txistularien jaitsiera, Tellagorritik hasita, Agurra Taldeagaz.
**19:00** Zumba: Rosi, Ylenia eta Ritagaz.
**19:30** Sardina-jana, Portuko plazan.
**19:30** Umeen nasapuntakoa, murrutzar txikian. Helduen nasapuntakoa eta ur-saltoen txapelketa, handian.
**20:00** Bertso-saioa: Sebastian Lizaso eta Inazio Vidal, Portuko plazan.
**21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao doktorearen plazan.
**21:30 / 03:30** Kuadrillen saioa eta Printzi Anaiak eta Deustooh DJen emanaldiak, agerleku handian.
**24:00** Plater irekiak, gazte-txosnan.



**Abuztuak 13, domeka. Umeen Eguna**

**11:00** Umeen margo-lehiaketa, Etxetxun.
**11:00** Umeentzako jolasak, Kids&Us taldeagaz, Portuko plazan.
**11:00-14:00 / 17:00-19:00** Skatez ibiltzen ikasteko eskolak, La Kantera Skate Skolagaz.
**12:00** Tenisean hasteko ikastaroak, eta gurasoen zein neska-mutilen bikotekako lehiaketaren finala, Playas de Getxo tenis-elkarteagaz.
**13:30** Margo-lehiaketaren sari-banaketa, Portu Zaharreko plazan.
**15:00** Gazte-bazkaria, gazte-txosnan.
**17:30** Buruhandien eta txistularien jaitsiera, Agurragaz, Tellagorritik.
**17:30** Uribe Kostako Trontzalarien Txapelketa, txosnagunearen aurreko parkingean, Getxo Herri Kirolak elkarteak antolatuta.
**18:00** Bits-jaia, beheko errepidean.
**18:00** Adriana Barbadoren emanaldia, agerleku handian.
**18:30** Deustooh DJren emanaldia, agerleku handian.
**19:30** Sardina-jana, Portuko plazan.
**19:30** Jasoaldiak.
**21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao doktorearen plazan.
**21:30-01:30** Erromeria.
**21:30** ZirkBinilo Gaua, gazte-txosnan.

**Abuztuak 14, astelehena Pijama Eguna**

**09:30** Marmitako Lehiaketan izen-ematea.
**10:30** Umeen arrantza-lehiaketa, arroketara doan pasealekuan.
**12:00** Buruhandien eta txistularien jaitsiera, Agurragaz, Tellagorritik.









**12:00** Marmitako Txapelketa. Marmiten aurkezpena 14:ooak arte, Etxetxun.
**13:30** Umeen arrantza-lehiaketaren sari-banaketa, portuko plazan.
**16:00** Erromeria, Bidean taldeagaz, gazte-txosnan.
**18:00** Bertso-saioa: Paule Loizaga, Kerman Diaz eta Unai Mendiburu bertsolariena; portuko plazan.
**18:00** Gazte-ginkana, Algortako Gazteak-en esku, txosnagunean.
**18:30** Marmitako Txapelketaren sari-banaketa, portuko plazan.
**20:30** Kuadrillen sari-banaketa, txosnetan.
**21:30** Las Tea Party, oholtza handian.

**Abuztuak 15, martitzena**
**06:00** Txo panpina erreko dute, murrutzar handian. Ostean, jaiei amaiera emateko traka.

JATETXEA
Saigon Fusión
TXINATAR ETA VIETNAMDAR SUKALDARITZA
Andrés Cortina kalea, 2 • ALGORTA
944 606 683 / 944 601 644
saigonfusion@saigonfusion.com • www.saigonfusion.com

SANIKO Taberna
Obispo Etxeandia 2
94 460 69 50
saniko2011@gmail.com

ATERKI Taberna
Basagoiti, 57 – Algorta
688 66 86 46

JOLAS AURRE
Andres Cortina, 4 - Algorta
94 491 09 67 - 608 577 446
cafeteria@pensionbasagoiti.es
PENSION BASAGOITI

EKIN
TABERNA JATETXEA
Bolue 4, ALGORTA
94 608 04 62

Unai
Taberna · Jatetxea
Algortako Etorbidea, 96. 48991 Getxo
94 466 16 61 · tabernaunai@hotmail.com

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak
Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

AJURIA TABERNA
MIRARIA DA AJURIAN DAGOEN ISILTASUNA
ANDRES CORTINA S/N
ALGORTA
Gora San Inazioak!

Taberna Berri
Sarrikobaso 4. ALGORTA
94 430 64 93
Giro ona eta pintxo goxo-goxoak
Oso ondo pasa jaietan!

URIZAR (LEMOIZ)

# Andramariak Abuztuak 11-19

**Abuztuak 11, barikua**
**16:00** Lemoizko XXVI. Udako Criteriuma, txirrindularitza-lasterketa.
**17:30** Puzgarriak.
**20:30** Txupinazoa eta jaien hasiera.
**21:00** Sardina-jana.
**22:00** Mariachien kontzertua.
**23:30** Patata-dantza, ume eta helduentzat, txosnan.

**Abuztuak 12, zapatua**
**11:00** Kalejira, trikitilariakaz.
**12:00** 40. Paella Txapelketa. Paellak 14:30etik 15:00etara aurkeztuko dira. Antolatzaileek ura emango dute; egurra, barbakoa, gas-sukaldetxoak eta bestelakoak parte-hartzaileek ekarri beharko dituzte.
**12:00-14:00** Ur-puzgarriak, 1 eta 12 urte bitarteko umeentzat.
**16:00-18:00** Ur-puzgarriak , 1 eta 12 urte bitarteko umeentzat.
**17:00** 40. Mus Txapelketa Perulorekin. Ondoren, sari-banaketa.
**18:30** Bits-festa.
**20:30** Paella Lehiaketaren sariak banatuko dituzte.
**22:00** Urtza DJren kontzertua.

**Abuztuak 13, domeka**
**11:00** Meza.
**12:00** Umeentzako frontenis-txapelketa.
**17:30** Binakako XVII. Briska Txapelketa. Ondoren, sariak banatuko dizkiete irabazleei.
**17:30** 54. Tute Txapelketa. Ondoren, sari-banaketa.
**20:30** Saiheski-jana.
**22:00** Musika, txosnan.

**Abuztuak 14, astelehena**
**17:00** Nazioarteko 45. Tortilla Txapelketaren hasiera.
**19:00** 22. Frontenis Txapelketaren finalak jokatuko dituzte.
**21:00** Tortilla-txapelketaren sari-banaketa.
**22:00** Musika-jartzailea.

**Abuztuak 15, martitzena**
**11:00** Meza nagusia, Andra Mariren omenez.
**11:00** Kalejira, trikitilariakaz.
**11:30** Nekazaritza eta Artisautza Azoka.
**12:00** Umeentzako sukaldaritza, grafiti-saioa eta zenbait tailer.



**Zazpi eguneko egitaraua dute Urizarko jaiek.** © LEMOIZKO JAI-BATZORDEA

**17:30** Herri-krosa. Hiru maila egingo dituzte: 3 eta 6 urte bitartekoena, 7 eta 13 urte bitartekoena eta nagusiena.
**20:30** Txokolate-edana.
**21:30** Jaietako zozketa eta bingoa.
**22:00** Zezensuzkoa.
**22:30** Jaien amaierako traka.

**Abuztuak 16, eguaztena**
**11:00** Zendutakoen omenezko meza.
**11:30** Herriko amamentzako eta aititentzako hamaiketakoa.

**Abuztuak 19, zapatua**
**14:30** Herri-bazkaria.
**16:30** Bazkalostean, musika-emanaldi bat egongo da.
**18:00** Bingo berezia.
**20:00** Txokolate-edana.
***Oharra:** Egitaraua behin-behinekoa da; aldaketaren bat egon liteke.

ERANDIO

# Erandiogoikoko kuadrillak, ea nork egin paellarik onena



Erabiliko diren osagaiak eta tenperatura dira paella on bat egiteko gakoak.

**Abuztuak 13, domeka**
**20:00** Dantza-plaza.
**21:30** Saiheski errearen dastaketa.
**23:30** Disko-festa.

**Abuztuak 14, astelehena**
**19:00** Trikiti-poteoa.
**21:30** Burruntzi-pintxoen dastaketa.
**23:30** Erromeria.

**Abuztuak 15, martitzena**
**Egun osoan** Umeentzako puzgarriak.
**11:00** Paella-lehiaketaren hasiera.
**12:30** Euskal dantzak: Goi-Alderenak.
**14:30** Paellak aurkezteko muga-ordua.
**16:00** Umeentzako disko-festa.
**18:00** Paellen sari-banaketa.
**18:30** Nagusientzako disko-jartzailea.

Abuztuaren 13an hasiko dituzte aurtengo Andre Mariaren omenezko jaiak Erandiogoikoan, domekan. Martitzena amaitu bitartean, ospakizunez gozatzeko aukera izango dute bertoko herritarrek zein auzora hurreratuko diren pertsona den-denek. Ohi legez, andramarietan ez dira faltako dantza-plaza, dastaketak, poteoa, neska-mutilentzako jarduerak eta gaueko dantzaldiak; ezta kuadrillen arteko paella-txapelketa ere. Andramari egunean izango da ohiko lehiaketa gastronomikoa; hala, egun horretan ikusi ahal izango da auzoko kuadrillen arteko lehia handia: ea nork egiten duen auzoko, herriko eta, beharbada, munduko paellarik onena; izan arrain, okel edo bakarrik barazkiz egindako paella. Lagun-taldeei 11:00etan emango diete paella egiteko arroza; ostean, nork bere osagai sekretuak erabilita prestatu ahal izango dute. Ostera, egindako chef-lana 14:30ean aurkeztu beharko du kuadrilla bakoitzak. Azkenik, 18:00etan banatuko dituzte sariak. Egun berean, Goi-Alde dantza-taldeak erakustaldia eskainiko du. Hala ere, kontuan izan behin-behinekoa dela jai-batzordeak aurreratutako egitaraua; oraindino antolaketa-lanetan dabiltza, eta aldaketa txikiren bat egon liteke.

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34
gura izanez gero,
etxera eroango dizugu egunkaria!

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA
• 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
• Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
• Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
• Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
• Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.
Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net
ikastolenelkartea

PLENTZIA

# Jazza hondartzara ekarriko du Plentziak, lehenengo aldiz

Uda honetan, Plentziako itsas hiribilduak ekitaldi berria estreinatuko du: AgorriJazz. Izenak dioenez, abuztuan egingo da, hilaren 18an eta 19an, beren-beregi. Jazz-musikaren jaialdi berria da, eta Udalak sortutako Plentzia Kulturaz ekimenaren barruko ekitaldietako bat da. Ekimen horren helburua da jarduera artistikoak egutegiko «lehenengo lerroan» ipintzea. Horretarako, herritarren parte-hartzea bilatu du Udalak. Jaialdia Ontziola plazan egingo dute, «Hondartza bai, kultura ere bai!» goiburuagaz. Abuztuaren 18an, barikuan, Trizak eta Jon Urrutia Trio hirukotea igoko dira oholtzara. Trizak taldekoek saxoa, bateria eta kontrabaxua joko dituzte, 20:00etan. Belak igo eta jaisteko soketatik hartu du izena taldeak; «Trizak listo euki» esaten da portuan adi egoteko, prest, datorrena datorrela. 22:00etan, Jon Urrutia Trio hirukote gazteak askotariko errepertorioa joko du, tradizioan oinarrituta eta, aldi berean, berritzailea. Zapatuan, De Diego Brothers izango da, 20:00etan, eurek sortutako musika eskainiz. Azken emanaldia Travellin' Brothers seikote leioaztar ezagunarena izango da.



Leioako taldearen kontzertua (22.00) izango da AgorriJazzeko azkena.© TRAVELLIN' BROTHERS

LEIOA ETA ERANDIO

# Santimamiko jaiak, berrituta

Abuztuaren erdialdean ospatuko dituzte Santimami auzoko aurtengo jaiak. Leioako eta Erandioko udalek iragarri dutenez, udalerri bien arteko mugan dagoen auzune horretako festak hilaren 17an eta 18an izango dira. Jai-batzordeak ez du ezeztatu, ezta baieztatu ere. Izan ere, HIRUKAren zenbaki berezi hau argitaratzean, oraindino egitaraua zehazten zebiltzan festen antolatzaileak. Alain Beraza jai-batzordearen kideak eta Guda Dantza musika-taldearen partaideak azaldu duenez, jai-batzorde berria osatu dute Santimamiko eta Leioako zenbait gaztek. Euren lehenengo urtean, azterketak denak amaitu ostean, esku bete lan dabiltza, baina norabidea argi dute: «gure helburua auzoko jaiei ikuspegi berria ematea da. Betidanik egin diren ekintzak mantenduz, egitarau berria sortuko dugu, gazteriarentzat zenbait ekintza prestatuz». Hala, musikari garrantzi handiagoa emango diote, kontzertuak eta DJ-saioak antolatuta. Iaz desagertzear egon ziren Santimamiko jaiak, orain dela 16 urte sortutako jai-batzordetik geratzen zen azken kideak festak antolatzeari utzi zionean, lan-kontuengatik. «Pena handia» ematen ziola aitortu zuen auzotarrak. Azkenean, auzokideek eta udalek antolatu zituzten iazko jaiak, eta erreleboa heldu da.




© BERBOTS

LEIOA

# San Bartolome Abuztuak 24-27

**Abuztuak 24, eguena**
**San Bartolome Eguna**
**11:30** Jaiei hasiera emateko txupinazoa eta *Txirlo*ri bosgarren omenaldia.
**12:00** Meza eta ohorezko aurreskua.
**13:00** Nagusientzako luncha.
**13:30** VII. Igel-tokaren txapelketa.
**20:00** Kuadrillen jaitsiera, Guretzat fanfarreagaz batera.
**21:00** Sardina-jana.
**23:30** Gau-jaia, Lisker erromeria-taldeagaz.



Parte-hartzea bultzatu gura du jai-batzordeak.

**Abuztuak 25, barikua**
**11:00** Umeentzako puzgarriak.
**11:30** Margo-txapelketa.
**13:00** Bits-jaia.
**18:30** Asto-probak.
**19:30** XIII. Tortilla Txapelketan izena ematea.
**21:00** Tortillak aurkezteko muga-ordua.
**20:00** Kontzertua.
**23:30** Gau-jaia, Oxabi erromeria-taldeagaz.

**Abuztuak 26, zapatua**
**Goizean,** Trikitilarien kalejira, kalez kale.
**10:30** Euskal produktuen azoka.
**11:30** Umeentzako puzgarriak.
**13:00** Kantu-poteoa, txosnatik hasita.
**14:30** VIII. herri-bazkaria: Trikiti-txotx. Txartelak salgai egongo dira jaien lehenengo egunetik bertatik, eguenetik aurrera.
**17:00** XII. Mus Txapelketa Arina.
**18:30** Asto-probak.
**23:30** Gau-jaia.

**Abuztuak 27, domeka**
**Goizean,** Trikitilarien kalejira, kalez kale.
**11:00** 52. Marmitako Txapelketan izena ematea egin daiteke aurreratzean.
**11:00** Masteklas Marmitako Txapelketan izen-ematea, zabalik.
**11:30** Umeentzako puzgarriak.
**13:30** Marmitakoak aurkezteko muga-ordua.
**17:30** Herri-kirolen probak, parte-hartzaileak.
**19:00** Zumba.
**21:00** Txokolatea banatuko dute, datorren urtera arte jaiei amaiera eman aurretik.

GORLIZ

# Urezarantza Abuztuak 19-20

**Abuztuak 19, zapatua**
**12:00** Puzgarriak, kiroldegian.
**13:00** Luncha, denentzat, trikitiaren doinuek lagunduta.
**16:30** Kirol-, briska-, tortilla- eta tute-txapelketak, kiroldegian. Tortillen sariak: 30, 20, 10 eta 5 euro.
**19:00** Umeentzako ikuskizuna.
**20:00** Aratz Dantza Taldearen emanaldia.
**21:00-24:00** Disko-gaua.
**22:30** Zezensuzkoa.

**Abuztuak 20, domeka**
**10:00** 47. Sukalki Txapelketa, Okarantxun. Antolatzaileek emandako argibideak, honako hauek: barbakoak eta gasezko sukaldeak bakarrik erabili ahal izango dira, egurrik ez. Artebiondo estratatik sartu eta txosnako estratatik irten beharko dute ibilgailuek. Azkenik, Udalak antolakuntzarako eta zerbitzuetarako orubeak zehaztu arte, ezin izango da lekurik gorde; hau da, abuztuaren 14tik aurrera egin ahal izango da.
**12:00-15:00** Trikitilarien kalejira.
**12:00-14:30** Herri-kirolak eta jolas tradizionalak: zaku-lasterketa, aulkien jolasa, eta beste hainbat.
**13:00-14:30** Sukalki-lapikoen aurkezpena, trikitiaren doinuek lagunduta.
**17:00** Sukalki-txapelketaren sari-banaketa.
**18:00** Herri-kirolak: txingak, abarken jaurtiketa eta sokatira.
**20:30** Jaien amaiera.



Aratz Dantza Taldearen emanaldia, zapatuan.

ALTZAGA (ERANDIO)

# San Agustin jaiak Abuztuak 24-29

**Abuztuak 24, eguena**

**12:00** Kuadrillen lehiaketan izen-ematea, udaletxeko etxabean.
**12:30** *Flashmob*-txupinazoa, Irailaren 23a plazan.
**13:00** Pregoia eta txupinazoa, udaletxean.
**13:00** Pregoia, erraldoien eta kilikien konpartsagaz.
**15:00** Urdaiazpiko-zozketa, Jado kalean.
**17:00** Txupinazo txikia, Irailaren 23a plazan.
**17:30** Umeentzako saioa.
**19:30** Kuadrillen jaitsiera, Txorrillotik, eta argazkia.
**19:30** Euskal kantak, kalez kale; La Plaza tabernan hasita.
**21:00** Parrillada, txosnetan.
**22:00** Zezensuzkoa: «Erandioko Jatorrita»; Irailaren 23a plazan.
**22:30** Sakatu elektrotxaranga, kalez kale.
**00:30** DJ Amorrortu, Irailaren 23a plazan.

**Abuztuak 25, barikua**

**11:00-13:00** Arrapala akuatikoa.
**12:00** Tortilla-lehiaketan izen-ematea, udaletxeko plazan.
**13:00-14:00** Kuadrilla-lehiaketako ezusteko proba.
**13:00-14:30** Bits-jaia.
**13:00** Mendibaiarte otxotea.
**13:30** Tortillak aurkeztea.
**15:00** Gazte-bazkaria, Irailaren 23an.
**17:00** Sandwich-tailerra.
**17:00** Olgetan Solas familiarteko kirol-jolasak.
**17:00** Bertso-lehiaketa, Irailaren 23a plazan.
**17:00** Esku-pilota, Jado ikastetxean.
**18:30** Erraldoien eta kilikien konpartsaren kalejira, Azoka Zaharrean hasita.
**18:30** Elektrotxaranga.
**19:00** Emakumezko pailazoak.
**19:00** Nagusientzako dantzaldia, Irailaren 23a plazan.
**19:30** Txorizo-jana, batzokian.
**20:30** Dantza-lehiaketa: Dantzan Tatxan, Txorierri kalean.
**23:00** Havana 537, Irailaren 23a plazan.
**01:00** DJ Munza, Irailaren 23a plazan.

**Abuztuak 26, zapatua**

**09:00** Hiruko futbolaren lehiaketa, 7 eta 12 urte bitartekoentzat, Erandio Kirol Elkarteak antolatuta.
**12:00-14:00** Puzgarriak.
**12:00** Paella-lehiaketan izen-ematea, Irailaren 23a plazan.



Kuadrillek hamaika proba gainditu beharko dute.

**12:00** Piñata.
**14:15** Paellak aurkeztea.
**15:00** Herri-bazkaria, Irailaren 23a plazan.
**17:00-19:30** Puzgarriak.
**18:30** Aurresku-txapelketa, Irailaren 23a plazan.
**18:30** Buruhandiak eta kilikiak, Gautxorin hasita.
**19:00** Kuadrilla-lehiaketako kayak-estropada.
**19:30** Nasapuntakoa, kaian.
**20:00** Dantza-txokoa, metro-geltokiaren aurrean.
**21:30** Playback-lehiaketa, Txorierri kalean.
**23:00** Kontzertua: Besos de Perro (Marearen omenezko taldea), Irailaren 23a plazan.
**23:30** Disko-festa, Txorierri kalean.
**01:00** Erromeria: Luhartz taldeagaz, Irailaren 23a plazan.

**Abuztuak 27, domeka**

**09:00** Putxera-lehiaketan izen-ematea, Obieta kalean.
**11:00** Zinta-lasterketa, bizikletaz.
**12:15** Molto motorren lasterketa.
**13:00** Zinta-lasterketa, patinez.
**13:00** Putxerak aurkeztea.
**13:00** Kuadrillen gynkana.
**15:00** Putxera-lehiaketaren sari-banaketa.
**16:00** Goitibeheren entrenamenduak.
**17:00** Goitibeherak.
**17:00-19:00** Eskalada-murrua, ludoteka eta aurpegia margotzeko tailerra.
**17:30** Dantza-erakustaldia, Irailaren 23an.
**18:30** Buruhandiak eta kilikiak, Gautxorin hasita.
**19:00** Bertso-saioa: Etxahun Lekue, Maddalen Arzallus, Aimar Karrika eta Xabi Paya bertsolariena; Irailaren 23a plazan.
**19:00** Gazte-poteoa.
**20:00** Dantza-txokoa, metro-geltokiaren aurrean.
**21:30** Gazte-afaria, Azoka Zaharrean.
**23:00** Kontzertua: Señora Tomasa taldearena; Irailaren 23a plazan.
**23:00** Show Drags, Txorierri kalean.
**24:00** 70eko eta 80ko hamarkadetako disko-festa, Txorierri kalean.
**01:00** DJ Bull, txosnetan.

**Abuztuak 28, astelehena**

**09:00** Kuadrillen triatloia, txosnagunean.
**11:30** Talo-tailerra.
**12:00** Meza nagusia eta aurreskua.
**12:00** Pintxo-lehiaketan izen-ematea, Irailaren 23a plazan.
**12:00** Kuadrillen rallya, txosnagunean.
**13:00** Nagusientzako luncha.
**13:00** Ur-gerra, Santi Brouard plazan.
**17:00** Igel-tokaren lehiaketa.
**17:00** Tarta-tailerra.
**18:30** Bilbainadak: Los Cinco Bilbainos, taldearenak. Irailaren 23a plazan.
**18:30** Erraldoien eta kilikien konpartsaren kalejira, Azoka Zaharrean hasita.
**21:30** Kontzertua: Urban bertoko taldearena; Irailaren 23a plazan.
**23:00** Erromeria: Garilak 26 taldeagaz; Irailaren 23a plazan.

**Abuztuak 29, martitzena**

**12:00-14:00 / 17:00-19:30** Puzgarriak.
**18:30** Dantza-erakustaldia: Uztargi taldearena.
**19:30** Erromeria eta dantzaldi gidatua Errebal taldeagaz, plazan.
**20:30** Bakarrizketa.
**22:00** Zezensuzkoa: «Erandioko Ajetxoa», Irailaren 23a plazan.
**23:00** Azken traka, Irailaren 23a plazan.

# Kuadrillak, Altzagako jai-eredu parte-hartzailearen erdigunean

**Altzagako jaien arima** eta izpiritua da kuadrillen txapelketa, «gazteria parte hartzera bultzatzen baitu».


Kuadrillek ematen diote bizitza eguneko programazioari.

Abuztuaren 24an hasiko da Altzagako kuadrillen odisea, eguenean, auzoko jaiak suziriagaz abiarazi baino ordu bat lehenago. Orduan, aukeran izango dute jaietan eurentzat beren-beregi prestatutako lehiaketan izena ematea. Itakaren bila ontziratuz gero, edo iaz Matxinada kuadrillak lortutako txapela bereganatu guran, Herculesen hamabi probak baino gehiago gainditu beharko dituzte. Besteak beste, eta kontuan hartu barik jende denarentzako lehiaketetan ere parte har dezaketela, honako hauei aurre egin beharko diete: jaitsiera, ezusteko proba, kayak-estropada, playback-lehiaketa, gynkana, triatloia eta rallya.

Gainera, egitarau bete hori bateratu beharko dute parrandakaz, familia-otorduakaz, jai-batzordeko lanakaz, txosnetako txandakaz eta bestelako konpromisoakaz. Beñat Padin Ona jai-batzordeko kidearen ustez, kuadrillen txapelketak garrantzia handia dauka jaietan. «Egiten diren probetan, kuadrillen inplikazioak bultzatzen du gazteria parte hartzera. Gainera, eguneko ekintzak sustatzen dituzte, ez bakarrik gauekoak. Hala, adin ezberdinetako jendea elkartzen da, eta herriko kuadrillen arteko harremanak sendotzen doaz», azaldu du Padinek. Berak ere segitzen ditu bere aholkuak, jai-batzordean ez ezik Burratxos kuadrillan ere dabil eta.









PLENTZIA

# San Antolin Abuztuak 26-Irailak 3



© PTB

### Abuztuak 26, zapatua

**11:00** Elkarretaratzea, Plazatxoan; kalejira, orain arteko Antolintxuakaz eta Madalentxuakaz.
**12:00** Meza, Antolintxuen eta Madalentxuen omenez.
**13:00** Aurtengo Antolintxu, Madalentxu, Antolintxu Txiki eta Madalentxu Txikiren aurkezpena. Ondoren, Aurreskua eta dantza-erakustaldia, Plentziako Dantza Lagunakaz. Gainera, Plentziako eta San Antolinen ereserkiak abestuko dituzte, Plentzia Kantagunegaz.
**20:30** Kontzertua.

### Abuztuak 30, eguaztena, San Antolin

**14:00** Gazte-bazkaria.
**17:00** Txistularien harrera Antolintxuri eta Madalentxuri, Ontziola plazan.
**17:30** Txupinazoa.
**18:00** Dultzaineroen igoera, Andra Marira.
**20:00** Dantza-erakustaldia, Itxas Eder taldearena.
**22:00** Zezensuzkoa.
**23:00** Erromeria zuria.

### Abuztuak 31, eguena, Umeen Eguna

**10:00** Tortilla-lehiaketa, umeentzat; eta entsalada-txapelketa, familientzat.
**11:30** Ume-parkea.
**14:00** Sari-emanaldia.
**17:00** Heriotza bako lantzoi-arrantza, familien arteko txapelketa.
**19:00** Nagusien mozorro-lehiaketa.
**22:00** Zezensuzkoa.
**23:00** Erromeria: Komodos taldeagaz.

### Irailak 1, barikua

**09:00** Eskualdeko Nekazaritza eta Abeltzaintzaren 125. Azoka.
**12:00** Euskal Jantzi Tradizionalen Erakustaldia. Madalentxuk, Antolintxuk, Madalentxu Txikik eta Antolintxu Txikik gerrikoak eta buruzapiak emango dituzte, janzkera ona aitortzeko.
**18:00** Bertso-saioa: Unai Iturriaga, Miren Amuriza, Etxahun Lekue eta Beñat Gaztelumendi bertsolariena.
**21:00** Zezensuzkoa.
**21:30** Nagusien playback-txapelketa.
**Ondoren,** Erromeria: Huntza taldeagaz.

### Irailak 2, zapatua

**10:00** Suziria botatzea.
**12:00** Meza nagusia, San Antolinen omenez.
**13:00** Udal Musika Bandaren emanaldia.
**14:00** Koktel-txapelketa, Ku-Klux fanfarreak alaituta.
**14:00** Elektrotxarangen topaketa.
**18:00** Umeen playback-txapelketa.
**19:30** VIII. Plentzia Kantari. Kantu-jira, kalez kale, Plentzia Kantagunegaz, Plazatxotik hasita.
**22:00** Zezensuzkoa.
**22:00** DJ Markelin.

### Irailak 3, domeka

**10:00** Plentziako 47. Marmitako Txapelketan izen-ematea.
**13:30** Marmiten aurkezpena, Ontziolan.
**17:00** Marmitako-txapelketaren sariak.
**18:00** Umeen mozorro-lehiaketa.
**20:30** Sari-emanaldia.
**21:30** Zezensuzkoen entzierroa eta jaien amaiera.






# «Herri osoarena da erasoak prebenitzeko erantzukizuna»

TESTUA: **IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA**
ARGAZKIA: **HODEI TORRES**



Sorginen Alabak talde feministak sortu du Gorlizko eta Plentziako jaietako erasoen aurkako prebentzio- eta erantzun-protokoloa. Jai-batzordeen, udalen, eta bestelako eragileen laguntza dute. Oiane Egaña Aranbaltzak azaldu du.

**Zein da protokoloaren helburua?**
Iazko errepasoan ikusi genituen izan ziren eraso denak. Ez direnez geldituko, pentsatu genuen prebentzio- eta erantzun-protokolo bat sortzea. Beharra badago, oraindino ez garelako ziur eta aske sentitzen etxera joatean.

**Zer du oinarritzat protokoloak?**
Hasteko, esku-orri bat aterako dugu, Plentziako eta Gorlizko mapakaz. Bertan agertuko dira argi edo mugimendu gutxi dituzten gune beltzak. Gainera, puntu moreak ere agertuko dira. Bertan, txosnaguneetan, etxera bueltatzeko brigadak egongo dira: hiru pertsonako talde bi. Beltzez jantziko gara, zapi more bat aldean, erraz identifikagaitzaten. Modu berean, auto-zerbitzua ere eskainiko dugu, auzoren batean bizi diren emakumezkoak arinago eroateko etxera. Dena den, hori ez da taxi bat. Bestalde, txosnaguneetatik eta jai-esparruetatik ibiliko dira pertsona boluntario batzuk besoko more bategaz; edozein eraso jasotzekotan, momentuan laguntza zuzena eskainiko dugu. Pertsona horiek aldez aurretik formakuntza jasoko dugu.

**Zelan lagun daiteke?**
Boluntario izanda eta, baten bat laguntza eske hurreratuz gero, arreta eskainiz: erasoa jaso duen emakumezkoagaz egoten, bakarrik senti ez dadin. Protokoloa guk sortu dugu, baina erantzukizuna herri osoarena da.










LEIOA

# Ondizko jaiak Irailak 1-17

**Irailak 1, barikua**
**18:00** Txupinazoa. Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.
**20:00** Sardina-jana.
**23:30** Erromeria eta mozorro-lehiaketa.

**Irailak 2, zapatua**
**18:00** Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.
**22:30** Kontzertua eta disko-erromeria.

**Irailak 3, domeka**
**18:00** Puzgarriak eta tailerrak.
**19:00** Ondizko X. Emakumezkoen Aurresku-txapelketa eta Bizkaiko 57. Aurresku-txapelketa.

**Irailak 8, barikua (Andra Mari)**
**11:00** Txistularien kalejira.
**12:00** Meza eta ohorezko aurreskua.
**13:00** Nagusientzako luncha.

**Irailak 9, zapatua (Andra Maritxu)**
**11:00** Txistu-kalejira.
**12:00** Meza, ohorezko aurreskua eta Leioako kirol-kluben lore-eskaintza.
**19:00** Idi-probak.

**Irailak 17, domeka (errepikapena)**
**08:00-14:30** Txapelketa: bakailaoa bizkaitar erara.
**18:00** Erromeria eta sari-banaketa.

# Udondoko jaiak Irailak 8-10

**Irailak 8, barikua**
**20:30** Spaghetti & Los Western elektrotxaranga, Sabino Aranatik hasita.

**Irailak 9, zapatua**
**09:00** Suziria botatzea.
**09:30** Udondoko IX. Paella Txapelketa.
**11:00** Antzinako kotxeen eta motorren erakusketa eta ibilaldia.
**12:00** Umeentzako puzgarriak, Euskal Etxeen Plazan.
**12:00** Bertso zirikatzaileak.
**16:00** Udondoko XV. Arrantza Txapelketa.
**17:00** IX. Mus Txapelketa eta ume-jolasak.
**18:30** Igel-toka, Udondo Tabernan.
**19:00** Urrezko Aizkolari Txapeldunen Liga.
**20:00** Paella- eta arrantza-txapelketen sari-emanaldia. Erromeria, Batek Daki taldeagaz; eta Mozorro Gaua.



© LEIOAKO UDALA

**Irailak 10, domeka**
**09:30** Suziria. Meza, Ondizko baselizan.
**10:00** Nekazaritza-gaien erakusketa.
**11:30** I. Tortilla Txapelketa.
**13:00** Ohorezko aurreskua eta ikurrinaren igoera, auzoko nagusiakaz; luncha.
**13:30** Udondoko Txikiteroen poteo musikatua.
**18:00** Gure Ohiturak dantza-taldearen erakustaldia.
**19:00** Txokolate-edana.
**19:00** Bilbainadak: Los Cinco Bilbainos.





URIBE KOSTAKO KOMUNIKAZIO-TALDEA
Hemen zure iragarkia
944 911 337
688 811 368
publi@hiruka.eus
www.hiruka.eus



FOLKGETXOBBK
XXXIII. NAZIOARTEKO FOLK JAIALDIA
XXXIII FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOLK
Getxo Folk
BBK2017
IRAILA 28-29-30 SEPTIEMBRE
+URRIA 1 OCTUBRE
AREETAKO GELTOKIA PLAZA PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
Saio nagusiak
Conciertos principales
Ordaintzekoak-De pago (21:00)
28 Osteguna • Jueves NIAMH NÍ CHARRA
artista gonbidatuak / artistas invitados
Ibon Koteron - Xabi Aburruzaga
29 Ostirala • Viernes JOSÉ MERCÉ
30 Larunbata • Sábado SOUAD MASSÍ
1 KUKAI DANTZA TALDEA "DONEJAKUE"
artista gonbidatuak / artistas invitados
Carlos Núñez - Maria Berasarte
Iñaki Salvador - Xabier Zeberio
Itsaso Elizagoien - Iñaki Tellería
Igandea Domingo (21:00)
Arratsaldeko Saioak
Conciertos de tarde
Dohainik-Gratis (18:30)
28 Osteguna • Jueves TRIVIUM KLEZMER (Aragoi / Aragón)
29 Ostirala • Viernes VOCES NAVARRAS (Nafarroa)
30 Larunbata • Sábado MARA (Portugal)
1 Igandea • Domingo BRUNA SONORA (Madril / Madrid)
Gaueko Saioak
Conciertos de noche
(23:00)
29 Ostirala Viernes LOS TEXMANIACS (EE.BB / EE.UU) 5€
30 Larunbata Sábado NAKANY KANTÉ (Ginea / Guinea) Dohainik-Gratis
Haurrentzako Ikuskizuna
Espectáculo infantil
1 Igandea Domingo EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN HARI LAUKOTEA
CUARTETO DE CUERDA DE LA ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI
5€ + PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS: "MUSIKA ARI DU"
Gainera, banda desfileak, Munduko Eskulanen Azoka, Gune Solidarioa eta Munduko Terraza
Además, desfiles de bandas, Mercado de Artesanías del Mundo, Espacio Solidario y Terraza del Mundo
Saltokiak • Puntos de venta
Sarreren salmenta: Venta de entradas: www.kutxabank.es
Orotarako kutxazainak Cajeros multiservicio
Algortako Kultur Etxea • Aula de Cultura de Algorta
94 491 40 80 • www.getxo.eus • kulturetxea@getxo.eus
Sarrera salmenta
Venta de entradas
Ekainaren 26tik salgai
A la venta desde el 26 de Junio
Abonamendua / Abono 50 €
Antolatzaileak | Organizan
Babesleak | Patrocinan
Laguntzaileak | Colaboran
Getxo
Getxo Kultur Etxea
bbk
Bizkaia
EL CORREO
inaem
metro bilbao

URDULIZ

# Andramariak Irailak 4-17

**Irailak 4, astelehena**
**21:00** Antsonekoa Areto-futbolaren XV. Txapelketaren finalerdia, Iparralde kiroldegian; doan.

**Irailak 6, eguaztena**
**21:00** Antsonekoa Areto-futbolaren XV. Txapelketaren finalerdia, Iparralde kiroldegian; doan.

**Irailak 7, eguena**
**19:00** Suziria botatzea eta pregoia irakurtzea, udaletxeko balkoian.
**19:30** Kakarraldoaren jaitsiera, eta kuadrillen eta herritarren desfilea, Landaraino, Auspokale taldeko trikitilariek eta buruhandiek lagunduta.
**20:00** Herriko zenduen aldeko meza.

**Irailak 8, barikua, Andra Mari eguna**
**11:00** Meza nagusia.
**11:45** Ohorezko aurreskua, elizaren aurrean.
**12:00** Herri-kirolak, Landan.
**16:00** Andra Mari Txirrindularitzaren 30. Sari Nagusia, 23 urtez azpikoen mailakoa.
**16:00** Urdulizko IV. Sangria Lehiaketa, Auskopolek alaituta, tabernaz taberna. Urdulizko Merkatarien Elkarteak antolatuta.
**19:00** Andra Mari Txirrindularitza Lasterketaren sari-banaketa, Landan.
**19:30** Ezusteko ekimena, gonbidatutako parte-hartzaileentzat, Landan.
**20:00** Antsonekoa Areto-futbolaren XV. Txapelketaren finalak jokatuko dituzte, Iparralde kiroldegian. Sarrera, doan.
**21:00** Los Jarochos taldearen emanaldia, Landan.
**22:30** Su artifizialak, Landan.
**23:00** Kontzertua: Urrats taldearena, Landan.

**Irailak 9, zapatua**
**10:00** Txistularien kalejira.
**11:00** Txu-txu trena, eta umeentzako parkea (puzgarriak eta ludoteka).
**13:00** Bits-jaia.
**16:00** Umeentzako jaia, Agirre Lehendakari plazan; euria izanez gero, Elortza ikastetxeko patioan egingo dute.
**17:00** Mozorro-lehiaketa, Agirre Lehendakari plazako frontoian. Amaitzean, sari-banaketa izango da. Aurretik, proban izen-ematea betetzea beharrezkoa da.
**19:00** Urduliz Eskubaloi Taldea klubaren aurkezpena, Iparralde kiroldegian.
**23:00** Kontzertua, Landan.
**24:00** Erromeria: Gora Herriagaz, Landan.

**Irailak 10, domeka**
**11:00-17:00** Garagarfest.
**17:00** Goitibehera-jaitsiera, Santa Marinako aldapan.
**18:00** Santa Marina IV. Igoera (500 metro), adin nagusikoentzat.
**18:30** Goitibeheren eta Urdulizko IV. Sangria-lehiaketaren sari-banaketa, txosnagunean.

**Irailak 15, barikua**
**16:00** Eskubaloia, neska-mutilentzat, Urduliz Eskubaloi Taldeak antolatuta; Elortza eskolako patioan.
**18:00** VII. Skate Xpression, musikak alaituta, Urdulizko skate-pistan. Euria izanez gero, beste egun batean egingo dute.
**19:30** Zaleen eta profesionalen pala-partidak, Iparralde kiroldegian.
**23:00** Kontzertuak: bertoko musika-talde batena eta Porco Bravo taldearena; Elortza auzoan.

**Irailak 16, zapatua**
**08:00** Nagusien herri-martxan izen-ematea, udaletxeko plazan. Aurreko egunetan ere izena eman ahal izango da, kultur etxean.
**09:00** Herri-martxaren irteera, nagusientzat.
**09:00** Txikien herri-martxan izen-ematea, udaletxeko plazan. Aurreko egunetan ere izena eman ahal izango da, kultur etxean.
**10:00** Herri-martxaren irteera, txikientzat; udaletxeko plazan.
**10:00** Txistularien kalejira.
**11:00** Umeentzako parkea (puzgarriak, ludoteka, tirolina eta eskalada-murrua), Elortza eskolako patioan.
**12:30** Iratxo Gorria bertoko dantza-taldearen erakustaldia, udaletxeko plazan.
**13:00** Erronka nagusia, udaletxeko plazan.
**14:30** Herri-bazkaria, Iparralde kiroldegian.








**Goitibeheren jaitsiera ikusgarria irailaren 10ean izango da.** CC-BY-NC-SA NAPHARROA

Daborduko, txartelak salgai daude ondoko leku hauetan: Txiki Barri jatetxean eta Txiberri tabernan.
**17:00** Profesionalen esku-pilota partidak, Iparralde kiroldegian.
**20:00** Kick-boxing erakustaldia, Iparralde kiroldegian.
**20:00** Sardina-jana, trikitilariek eta pandero-joleek alaituta; udaletxeko plazan.
**23:00** Kontzertua, Elortza auzoko txosnagunean.
**23:00-02:00** Informaziogunea: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaineko eta drogen inguruko informazioa jaso ahal izateko gunea, txosnagunearen ondoan.
**24:00** Erromeria: Trikizio taldeagaz; Elortza auzoko txosnagunean.

**Irailak 17, domeka**
**12:00** Vespa motorren erakusketa, Elortza auzoko txosnagunean.
**16:00** Mus-txapelketa.
**16:30** VII. Urdulizko Auto Slaloma, futbol-zelai zaharreko parkingean, Euskadiko Automobilismo Federazioaren egutegi-proba.
**18:00** Areto-dantzak, Iparralde kiroldegian.
**Ondoren** Andra Mari jaien amaiera.






GETXO

# Getxophotok *Trantsizioak* gaia ekarriko du Algortako kaleetara



**Ehunka lagunek parte hartuko dute Getxophotoren bisita gidatuetan.** © GETXOPHOTO

**Getxophotoren 11. edizioaz** gozatu ahal izango da abuztuaren 31tik urriaren 1era.

Getxo eta argazkilaritza lotu dituen festibala da Getxophoto, Hala, antolatzaileek gurago dute «Getxon, Euskal Herrian, ikusizko arteak jorratzen dituen jaialdia» dela azaldu. Begihandi kultur elkarteak antolatuta, Mónica Allende editore grafikoak, kultur ekoizleak eta komisarioak prestatu du Getxophotoren aurtengo edizioa, *Trantsizioak* goiburuagaz. Jaialdiaren ardura lehenengo aldiz hartu du Allendek, hala ere, eskarmentu handia dauka bilbotarrak. Besteak beste, London Collegue Communication-eko irakasle bisitaria da, eta epaimahaikidea izan da World Press Photon eta nazioarteko beste zenbait lehiaketatan. Oraindino, jaialdiak ez du iragarri zein egilek parte hartuko duten aurtengo edizioan; ostera, Getxophoto jaialdiaren arduradunek daborduko zehaztu dituzte antolatuko eta eskainiko dituzten jarduerak, besteak beste.

Bisita gidatuak izaten dira ekimenik jendetsuenak; aurten hiru motakoak izango dira. Alde batetik, bisita berezia izango da irailaren 3an, domekan. Egun horretan, ordu biko saioan, Allendek berak eta erakusketan parte hartuko duten hainbat argazkilarik emango dituzte jarraibideak. Beste alde batetik, iraileko zapatuetan eta domeketan, ohiko bisita gidatuak izango dira, 3 euroan. Aurretik izena ematea beharrezkoa da. Bestelakorik eskatu ezean, euskarazko bisita gidatuak egun bitan izango dira: irailaren 30ean eta urriaren 1ean. Azkenik, argazki-erakusketa gauez ere ikustea aukeran egongo da, iraileko barikuetan. ◂

**info+: Getxophoto.com**

**Uztailak 26, eguaztena**
**Egun osoan** *Etorkizuna hemen da* gaiaren inguruko argazki-lehiaketan parte hartzeko epemuga.

**Abuztuak 31-urriak 1**
**Egun osoan** Getxophotoren Info Gunea zabalik egongo da, Algortako Amezti kalean, 4. zenbakian.

**Irailak 1, barikua**
**19:30** Jaialdiaren irekiera-ekitaldia, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Aurretiaz izena eman beharra dago.

**Iraileko barikuetan**
**20:30** Gaueko ibilbideak.

**Iraileko zapatuetan eta domeketan**
**11:30** Oinezko bisita gidatuak, gaztelaniaz, erakusketa ikusteko. (Euskarazkoen baldintza berak, ikusi beheragoi).

**Irailak 3, domeka**
**11:30** Erakusketa ikusteko bisita gidatu berezia, Mónica Allende komisarioagaz eta zenbait egilegaz; Algortako San Nikolas plazatik irtengo dira.

**Irailak 16, zapatua**
**11:00** Hamaiketakoa, Conny Beyreuther-egaz; Adi Espazioan.

**Irailak 23, zapatua**
**11:00** Hamaiketakoa, Vicente Paredesegaz; Adi Espazioan.

**Irailak 30, zapatua**
**11:00** Hamaiketakoa, Txelu Angoitiagaz; Adi Espazioan.

**Irailak 30 eta urriak 1**
**11:30** Oinezko bisita gidatuak, euskaraz, erakusketa ikusteko. Algortako metro geltokitik irtengo dira. Aurretik izena eman daiteke, eta ordutegia alda daiteke. Prezioa: 3 euro.

# Hirukira olgetan

© Garbine Ubeda

SOLUZIOAK:



Maripurtzilek udalekura joan gura du lagunakaz, baina ez du bere gela inoiz txukuntzen eta orain ez ditu beharko dituen gauzak aurkitzen. Non ote dira...

## Hau anabasa

1. Bainujantzia 
2. Largabista 
3. Argazki-kamera 
4. Eskumuturreko ordulari gorria 
5. Betaurreko laranja 
6. Lotarako zakua 

Hemen duzun saskiaren eta marrazkikoaren artean lau diferentzia daude. Zeintzuk dira?



## Urratsez urrats



Pertsonen urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuma, gora edo behera eginez; diagonalean ez.



## Gameluaren itzala

Zortzi itzal hauen artean, zein da erdian dagoen gamelu xelebreari dagokiona?




## Aldeak




## Ondo banatu

Animaliaz osatutako taula hau lau zatitan banatu behar duzu. Zati horietako bakoitzak lau animalia ezberdin behar ditu barruan: ardia, txerria, ahatea eta igela.



Aurkitu marrazki bi hauen arteko 10 desberdintasunak:




## Esaera




Txerri gosetiak...

- ...potoloak izaten ditu titiak
- ...inguruan beti euliak
- ...ezkurra amets
- ...amets bitxiak
- ...lotan ematen du eguna
- ...ezertarako denborarik ez
- ...lotan jaten du
- ...platera hutsik
- ...inurriak lagun

## Dadoa

Zein kubo aterako zaio Maripurtzili sei aldeak tolestu eta itsasten dituenean, A, B, C edo D?








## Udaberri engainagarriak

Sei zati hauetatik bakarra dago irudi handitik hartuta. Zein da?









Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. **NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?**

## Lehiaketa: Non da?

### SARIAK

**Gaztetxoentzako liburu-sorta bat zozkatuko dugu**




*Jasone Osororen «Jara», «Jara bikiak eta bikoteak», «Jara Bartzelonan» eta «Jara live» lanak zozkatuko ditugu.*

**ArdiBidez mahai-jolasa zozkatuko dugu**

*Jolas honi esker, 7 urtetik aurrerako umeek Euskal Herria zeharkatuko dute.*




Sariren bat irabazi gura baduzu, abuztuaren 31 (astelehena) baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: **administrazioa@hiruka.eus** edo **944 911 337**

# EUSKADIKO NEKAZALTURISMO ETA LANDA-ETXEAK






Nekaturrek eskeintzen dizu:

- Erreserben doako kudeaketa (logelak, apartamenduak, etxe osoak)
- Opari bonu eta txekeen salmenta
- Eskaintza eta Deskontuak Euskadiko erakunde turistikoetan
- Turismo edo/eta lan bidaietarako ostatuak
- Enpresa bileretarako edo opari bezala
- **Eta askoz gehiago...**




EUSKADI

943 32 70 90

www.nekatur.net

# Egin zaitez **hiruka**lagun, txanpon baten truke

**Ez daukazula HIRUKArentzat** 1 euro? Ezin duzula 1 euro gorde astean zure herriko eta eskualdeko berriak, jazoerak, asmoak, ametsak, eztabaidak eta bizilagunak edo zu zeu lehen-mailako protagonistatzat dituen komunikazio-proiektuarentzat? Hilean 3 euro baino gutxiago balio du HIRUKAlagun egiteak... Orain artekoa ahalegin biziko plazera izan da! Zure bila gabiltza gozatzen jarraitzeko... Zer da euro bat?




**Ipini gugaz harremanetan: 944 911 337 · administrazioa@hiruka.eus**